



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

## KONTU KONTARI

HAURRAK EUSKALDUNTZEN BIDEOAREN BIDEZ (2.ZATIA)

*Lurdes Iriondo*



361:372.3









EZ- 01885

D4-050

## **GLOTODIDAKTIKA-LANAK 20**



Egilea: Lurdes Iriondo  
Marrazkilaria: Antton Dueso  
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eusko Jaurlaritza  
I.S.B.N.: 84-7542-177-2.  
Legezko Gordailua: VI-214/85.  
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.  
Lehenengo Argitaraldia: 1985eko Martxoan

**Lurdes Iriondo**

**KONTU KONTARI**  
**HAURRAK EUSKALDUNTZEN**  
**BIDEOAREN BIDEZ (2.ZATIA)**

**Gasteiz 1985**





## AURKIBIDEA

Orrialdea

AURKEZPENA.....	7
1. BOTADUN KATUA.....	9
2. URREZKO ARRAUTZAK.....	15
3. TXOKOLATEZKO ETXEA.....	21
4. EDURNE ZURI.....	27
5. SAN JUAN SUA.....	35
6. OLENTZERO GAUA.....	41
7. KETEBI HERRIAN.....	49
8. ASTOA ETA OTSOA.....	57
9. MATEO TXISTU.....	67
10. INAUTERIAK.....	75
11. TARZAN.....	81
12. MARI-ZIKIN.....	87
13. ZORRIAREN LARRUA.....	93
14. SENDAGILE EROA.....	101
15. TXORIA, ARRAINA ETA NESKATXA.....	109



## AURKEZPENA

*"Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez" izenaren pean eman zuen argitara Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batipat Eskolaurrerako moldatutako bideo pelikula sorta bat 1982-83 ikasturtean. Guztira zazpi bideo zinta ziren, bideoa ia 20 ordu euskaraz grabatuak, txotxongilo edo antzerkiko euskal taldeen laguntzaz. Pelikula haien material osagarri bezala argitaratu ziren "Glodidaktika-lanak" saileko sei liburu, 6, 9, 10, 11, 12 eta 13garrena hain zuzen.*

*1984-85eko ikasturte honetan beste bideo sorta bat argitaratu da aurrekoaren jarraipen: "Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez (2. zatia)". Bertan ikus ditzakezue, besteren artean, Lurdes Iriondo eta bere taldeak grabaturiko ipuinak. Ipuin horien gidoiak dituzue liburu honetan bilduak. Berauen laguntzaz, haurrek bideoa ikusi aurretik eta ondotik, irakasleak klasean euskara landu ahal izatea bideratu nahi da. Argumentoa ulertaraztea dela, esamoldeak errepikatzea dela edota antzerkitxo bat antolatzea dela, beti da ongarri (ezinbesteko esan liteke) pantailan ikusitakoari bere zukua ateratzea.*

*Honetarako ordea, irakasleak aurrez prestatu behar du piska bat gelan egitekoa. Hona guk proposatzen ditugun pausoak:*

- 1. PRESTAKUNTZA: Irakasleak ipuina aurrez irakurria izango du eta interesatzen zaizkion zenbait puntu azpimarratu edo jasoko ditu, alor desberdinetan.*

*Posibleen artean:*

*Hiztegia: lauzpabost hitz berri edo interesgarri.*

*Aditza: lauzpabost adizki.*

*Eguneroko esaldi edo modismoak.*

*Egiturak: sintaxi egitura bat edo bi.*

*Fonologia eta Doinuera: hitz edo esaldi berezi batzuk.*

*Hizkuntz funtzioak: Gauzak eskatzeko, emateko, galdetzeko, errietan emateko, poza adierazteko, gertakariak kontatzeko etab. erabiltzen diren formulak.*

*Pasarte farregarriak edo edukin sozial azpimarragarrienak.*


2. **AURKEZPENA:** Ipuina kontatuko zaie haurrei, nolabaiteko interesa berengan sortaraziz. Aldi berean, bideoan agertuko diren gauza zailenak esplika daitezke, bai hizkuntz arloan, edukin arloan... Eta lantzeko aukeratu ditugun puntuak ere azaltzen hasiko gara, behar bada ariketaren bat ere eginez. Gidoien liburutik ateratako marrazkiak ere margotu daitezke, edo bideoko kantaren bat ikasi etab., etab.
3. **BIDEOA IKUSTEA:** Pertsonaiak eta haria ezagutzen dituelarik askoz errazago egingo zaio haurrari bideoa jarraitzea eta ulermen maila altuago batera heltzea. Ikuskizuna momentu atseginena bada ere marko handiago baten barruan dagoela jakin behar du haurrak, bideoen ikuste eta errepikatze zoro batean ez erortzearren.
4. **LANTZEA:** Lantzeko aukeratu diren puntuak berrikusiko dira eta berrerabiliko dira ohizko ariketak eta jolasak baliaturik: galde-erantzunak, errepikatze arinak, antzezpen laburrak, antzeko ipuinen kontaketak...  
Puntu konkretuetatik at ipuina bere osotasunean ulertu den ere konprobatu beharko dugu, aldi berean beste zenbait kontzeptu eta balore azaltzen saiatuz: etxeko lanak, ogibideak, arriskuak, jokabide desberdinak, giza-erlazioak etab.

*Urrats horiek edo beste batzuk urratuz, probetxu handiagoa aterako diogu, dudarik ez, irekitzen hasi zaigun bideoaren alor berri honi.*

**EUSKARA ZERBITZUA**



# BOITADUIN KATUA







## 1. BOTADUN KATUA

*Behin batez oso gizon zahar bat bizi zen. Oso gaixo zegoen. Laister hilko zen.*

- ZAHARRA: Semeak! Semeak! (badatoz). Semeak, laister hilko naiz.  
Nire gauzak zuentzat izango dira:  
zuretzat, Ximon, etxea  
zuretzat, Xanti, astoa  
eta zuretzat, Bixente, katua  
Aaaaaah!, hilko naiz...  
Aaaaaaaaah! (hiltzen da).
- XIMON: Hil da! Etxe hau nirea da. Alde hemendik!
- XANTI: Bai anai gaiztoa zarela! Goazen, astotxo! (badoaz).
- XIMON: Alde, alde!
- BIXENTE: Nora joango naiz? Hain pobrea naiz... Goazen, katu-txo!
- BIXENTE: Nora joango naiz? Hain pobrea naiz... Katu bat bakarrik daukat, eta zaku honetan bi letxua eta arropa batzuk, besterik ez.
- KATUA: Ez triste jarri, jauna. Nik lagunduko dizut.
- BIXENTE: Zuk neri lagundu? Nola?
- KATUA: Ekarri letxua bat... (hartzen du).  
Orain lo egin lasai.

KATUA: Ea untxi bat etortzen den letxua jatera...  
Eh! Badator! Eta letxua jaten ari da!

BIXENTE: (esnatuz) Zertan ari zara?

KATUA: Lasai, lasai, laister etorriko naiz eta... (zakua hartu eta badoa).

*Katua erregearen jauregira joan zen.*

ERREGAEA: Nor zara zu?

KATUA: Nire nagusia Karabas-eko markesa da. Zaku honetan untxi bat dago. Nire nagusiaren partetik, zuretzat.

ERREGAEA: Zure nagusia oso ona da. Eskerrik asko.

KATUA: Agur, errege jauna. Agur, printzesa polita!

BIXENTE: Nora joan da katua? Aspertzen ari naiz.

*Katua itzuli zen eta bere nagusiari dena kontatu zion.*

*Hurrengo egunean katua beste koneju bat harrapatu zuen.*

*Eta berriz ere palaziora joan zen.*

ERREGAEA: Oh, berriz hemen? Eta beste untxi bat? Zure nagusia oso ona da. Non bizi da?

KATUA: Han, gaztelu batean.

ERREGAEA: Bihar joango gara bere gaztelura. Agur.

KATUA: Agur.

PRINTZESA: Agur, katu jauna.

KATUA: Nagusi! Nagusi jauna! Erregea zure gaztelura joango da bihar!

BIXENTE: Nire gaztelura? Nik ez dut gaztelurik!

KATUA: Ikusten al duzu han urrutian gaztelu bat?

BIXENTE: Han, mendi punttan?

KATUA: Gaztelu horretan ogro bat bizi da. Nik ogroa hilko dut ta gaztelua zuretzat izango da. Goazen!

BIXENTE: Baina nola hilko duzu ogroa?

KATUA: Ikusiko duzu! Goazen!

*Gaztelu hartan ogroa zegoen. Oso gaiztoa zen.*

OGROA: Aaaaaaah! Oso gaiztoa naiz. Pertsonak jaten ditut. Aaaaaaah! (badoa).

*Bixente eta katua gaztelura sartu ziren.*

KATUA: Nagusi, zu hor izkutatu... (izkutatzen da). Horrela! (dei egiten du, oihuka). Eeeeeeh! Eeeeeeh! Inor ez al dago hemen?

OGROA: Aaaaaaah! Nor zara zu?

KATUA: Katu txiki bat naiz.

OGROA: Katu txiki bat?... Eta zer nahi duzu?

KATUA: Oso ausarta zarela esan didate...

OGROA: Bai! Oso ausarta naiz. Beti irabazten dut. AAAAAAAH!

KATUA: Eta oso bizkorra zarela esaten dute...

OGROA: Bai. Oso bizkorra naiz. Dena dakit egiten. Aaaaaaah!

KATUA: Dena al dakizu egiten?

OGROA: Bai, dena dakit egiten.

KATUA: Den-dena?

OGROA: Den-dena... Ea, zer nahi duzu nik egitea?

KATUA: Ba... ez dakit. Zerbait zaila.

OGROA: Ja, ja, ja! Zaila? Niretzat dena erreza da... ja, ja, ja! Zer nahi duzu nik egitea? Esan!

KATUA: Ba... izan zaitetz orain lehoi bat!

OGROA: Lehoi bat? Bai gauza erreza! Lehoi bat izango naiz! Oraaaaiinnnnn!  
(Lehoi bihurtzen da. Katua beldurrez).

OGROA: Jo, jo, jo! Bai beldurtia zarela... jo, jo, jo!!

KATUA: Bah! Lehoi bihurtzea oso erreza da, lehoia oso haundia delako, zu bezala... Baina gauza txiki bat izan zaitetz...

OGRO: Gauza txiki bat? Zer gauza?  
KATUA: Ba... xagu txiki bat!  
OGROA: Xagu txiki bat? Bai gauza erreza! Xagu bat izango naiz.  
Oraaaaain!  
(Ogroa xagu bihurtzen da, eta katuak jan egiten du).  
BIXENTE: Ihes egin al du?  
KATUA: Ez. Jan egin dut. Nire sabelean dago orain. Ja, ja, jaaa!  
BIXENTE: Ja, ja, jaaaa!  
KATUA: Eh, nagusi! Laister etorriko da erregea. Arropa berriak jantzi!

*Erregea eta bere alaba gaztelura zetozen karroza batetan.*

ERREGA: Oh, bai gaztelu ederra!  
PRINTZESA: Karabas-eko markes hori oso aberatsa izango da.  
ERREGA: Goazen!  
KATUA: Errege jauna... printzesa polita... ongi etorriak nire nagusiaren gaztelura.  
ERREGA: Zu al zara Karabas-eko markes famatu hori?  
BIXENTE: Ni naiz, errege jauna.  
ERREGA: Eskerrik asko konejuengatik... Nahi al duzu nire alabarekin ezkondu?  
BIXENTE: Berak nahi badu...  
PRINTZESA: Oh, bai, nahi dut!

*Eta horrela, ezkondu egin ziren.*

*Erregea eta katu oso lagun egin ziren, eta elkarrekin konejuak harrapatzera joaten ziren.*

*Eta ipuia hementxe amaitzen da.*





# UREZKO ARRAUTZAK





## 2. URREZKO ARRAUTZAK

*Behin batez etxe zahar bat zen.*

*Eta etxe hartan mutiko behartsu bat bere amarekin bizi zen.*

*Ez zuten jateko ia ezer.*

*Martintxok ez zuen jostailurik. Harri-koxkor batzurekin jolas egiten zuen, bakar-bakarrik.*

MARTINTXO: (abestuz)  
harri-koxkor batzugin hor dabil Martin tin-tin  
jotzen ditu klax-klax-klax bata bestearekin  
jotzen ditu klax-klax-klax bata bestearekin  
harri-koxkor batzugin hor dabil Martin tin-tin.

*Gauez lurrean lo egiten zuten.*

*Gau batez, Martintxok amets asko izan zituen.*

*Lehenik, bakero bat zela...*

*Gero, pirata bat zela...*

MARTINTXO: (esnatuz) Buufff! Zenbat amets! Goseagatik izango da.  
Lo egingo dut berriro...

*Baina berriz ere beste amets bat eduki zuen. Maitagarri bat agertu zitzaion, eta honela esan zion:*

MAITAGARRIA: Oso pobrea zarelako erregalo bat egingo dizut. Zuretzat oilo hori. Baina beti ona izan... Agur!



*Goizean, mahai gainean oilo bat zegoen.*

AMA: Ooohhh! Arrautza bat!

MARTINTXO: Urrezkoa da!

AMA: Arrautza salduko dut eta diru asko emango digute.

*Amak arrautza saldu zuen eta diru asko eman zioten.*

*Diru horrekin gauza asko erosi zituen:*

*Antxoillak.*

*Sagardoa.*

*Goxokiak.*

*Aterki bat.*

*Eta bi manta.*

*Gero, gauez berriro lotara joan ziren.*

*Eta hurrengo goizean...*

AMA: Oh! Beste arrautza bat!

MARTINTXO: Urrezkoa da!

AMA: Arrautza saltzera noa!

*Amak arrautza saldu zuen eta diru horrekin jantzi polit asko erosi zuen... bi aulki eder ere erosi zituen.*

*Horrela, oiloak egunero urrezko arrautza bat egiten zuen...*

*Mutilak eta bere amak diru asko zuten orain.*

*Gauza asko erosi zuten eta harrotu egin ziren.*

AMA: Hemendik aurrera arrautzak gordeko ditugu.

*Eta egunero arrautza gordetzen hasi ziren.*

AMA: Zenbat arrautza!

MARTINTXO: Laister ehun!

AMA: Laister mila!

MARTINTXO: Laister miloia!

AMA: Miloi bat arrautzarekin berebil bat erosiko dut...

MARTINTXO: Eta nik motozikleta bat...

AMA: Eta nik labadora bat...

MARTINTXO: Eta nik reglamentuzko baloi bat...

AMA: Eskerrik asko, oilo... Mua!

MARTINTXO: Mua!

*Oso pozik zeuden oiloarekin...*

*Baina gau hartan mutilak beste amets bat egin zuen:*

*Deabrua agertu zitzaion!*

DEABRUA: Oilo, oilotxo, non duzu gaurko arrautza?  
Hemen?  
Zenbat arrautza dituzu sabelean?... Bat? Hamar? Mila?  
Oilo, oilotxo, nire sardea zure sabelean sartzen badut  
arrautza denak aterako ditut.  
Zenbat arrautza dituzu hor barruan?... Hamar? Mila?  
Miloia?... Ja, ja, jaaaaa!

*Mutila esnatu zenean...*

MARTINTXO: Ama, ama! ...Deabrua ikusi dut!

AMA: Eta zer?

MARTINTXO: Bere sardea oiloaren sabelean sartu duela.

AMA: Eta zer?

MARTINTXO: Sabelean milloi bat arrautza dituela oiloak!

AMA: Eta zer?

MARTINTXO: Ba, oiloak egunero arrautza bat bakarrik jartzen duela...

AMA: Eta zer?

MARTINTXO: Ba, zai egon gabe, oiloa hil genezakeela, eta arrautza denak gaur bertan gureztat!

AMA: Egia da! Arrautza denak gaur bertan gureztat!

*Eta horrela, oiloa hil egin zuten, sabeletik arrautzak ateratzeko asmoz.*



MARTINTXO: Ez dago arrautzarik!  
AMA: Sabela hutsa dago!  
BIEK: aaaaaaiiii!!  
MARTINTXO: Orain ez dugu arrautzarik!  
AMA: Orain ez dugu oilorik!  
BIEK: Aaaaaiiii!!

*Amak eta mutilak negar asko egin zuten, baina alferrik izan zen.*

# CHOKOLATEZKO GUTIA





### 3. TXOKOLATEZKO ETXEA

*Egun batez, aitor eta eguzki beren etxetik atera ziren, ikastolara joateko.*

*Bidean kukua entzun zuten, eta kukuaren kabia harrapatzea pentsatu zuten.*

*Eta mendira joan ziren.*

*Asko ibili ziren.*

*Nekatu egin ziren, eta galdu egin ziren, eta negar egin zuten.*

*Orduan sorgin bat agertu zitzaien.*

SORGINA:           Bi haur? ...je, je, je!  
Egun on, haurrak. Zergatik zaudete negarrez?  
Galdu egin zarete? Ixo, ixo, maiteok...  
Han goian nire etxea dago.  
Nire etxea dena txokolatzkoa da... leihoak bizko-  
txoak dira... teilatua dena turroiarekin egina...  
Begira, begira nire etxearen argazkia. Polita, eh?  
Goazen, goazen...  
Ni erdi-itsua naiz... ez dut ia ezer ikusten... goazen  
poliki-poliki.  
Ikusiko duzue. Dena txokolatea eta krema, je, je, je!  
Goazen, goazen poliki-poliki.

SORGINA:           Sartu, sartu... je, je, je... hau da nire etxea. Polita, eh?  
Tori, tori pastelak.  
Eta... nola duzue izena?

EGUZKI:            Nik Eguzki.



AITOR: Eta nik Aitor.

SORGINA: Aitortxo eta Eguzkitxo... je, je, je... Ba, nire izena Lorea da. Loretxo bat naiz, je, je, je.  
Hau nire etxea da... Polita, eh?  
Begira, poto honetan banpiroen tripak daude.  
Beste honetan, sugeak.  
Hemen, apoak.  
Hor labezomorroak.  
Beste horretan, euliak.  
Janari goxoak egiteko dira, je, je, je!  
Eta hemen kaiola haundi bat dago. Eta kaiolan, hor, txokoan, txori txiki, txiki, txiki bat dago...  
Sartu, sartu ikustera, Aitortxo.  
(Aitor sartzen da eta sorginak kaiola hesten du).

EGUZKI: Ireki! Ireki!

SORGINA: Ixo! Ni sorgin bat naiz! Haurrak jaten ditut!

EGUZKI: Sokorroooo!

SORGINA: ASKI! Ni erdi-itsua naiz, eta zuk etxeko lanak egingo dituzu...

SORGINA: Eta zure anaia lodi-lodi-lodi-lodi jartzen denean, jan egingo dut... ja, ja, ja!!

EGUZKI: Sokorroooo!!

SORGINA: Isiltzeko! Bestela!...  
Lotara noa.

*Atea itxita zegoen. Preso zeuden. Eguzki giltza harrapatzera joan zen, isil-isilik.*

SORGINA: Aja! Giltza, eh? Giltza nahi duzu, eh? Tori giltza, giltza, tza, tza, tza...  
Orain ikusiko duzu!  
(jo egiten du, eta sokarekin hanka lotzen dio).  
Tori, tori, tori!... Horrela, lotuta!  
Eta zuk, ume mukizu, jan, jan asko! Eta lodi, lodi, lodi jartzen zarenean, jango zaitut. Tori!  
(Pastela ematen dio. Aitor jaten hasten da).

EGUZKI: Ez jan! Ez jan!

SORGINA: Ixo! Tori, jan!  
(pastela ematen dio, eta mutilak bota egiten du).  
Aaaaaah! Ume nazkagarria, zerria, zerria, zerria!  
Ni orain erre kara noa, ur bila, nire arropak garbitzeko.  
Bitartean, zuk jan, jan! Bestela!



*Bi haurrak bakarrik gelditu ziren.*

*Eguzkik Aitorri makila bat eman zion; sorgina engainatzeko... gero sorgina sartu zen.*

SORGINA: Zer, dena jan al duzu?  
Ea, erakutsi zure besoa... (makila).  
Uiuiuiuiui, bai beso mehea!  
Tori, tori, jan gehiago...  
Eta zu dantzara!  
Dantzatu! Dantzara esan dut!  
Neri dantza ikustea gustatzen zait... Dantzatu!  
(Eguzki eta sorgina dantzan).  
Ja, ja, jaaaaa!

*Egun asko pasa ziren...*

*Asteartea.*

*Asteazkena.*

*Osteguna.*

*Ostirala.*

*Larunbata...*

*Baina igandean...*

SORGINA: Gaur igandea da. Igandea. Igande santua, ja, ja, ja...  
Igande santua... (labana zorrotuz) Aaaaaaaaahh!

EGUZKI: Sokorro!

SORGINA: Ixo! (mutikoari) Besoa! Uuuuyyyy! Bai beso mehea  
oraindik... Berdin da! Gaur jango zaitut!  
(labana probatu eta apalean uzten du).  
Lapiko bat behar dut... Lapikoan sartuko zaitut...  
Petatekin... kin, kin, kinkin... Lapiko haundi bat...  
(Eguzkik labana hartzen du).  
Lapiko hau txikia da. Mutila ez da hemen sartuko.  
Lapiko haundi bat behar dut, je, je, je!  
(Eguzkik zartagiarekin jotzen du).

EGUZKI: Giltza!  
(giltzan kentzen dio, kaiola irekitzen du).  
Korrriiii! Koorriiii!  
(lasterka doaz).

*Etxean ama oso kezkatua zegoen.*

AMA: Non daude gure haurrak?


HAURRAK: (Urrutitik) Amaaaa!

AMA: Eguzki! Aitor!

*Aitor eta Eguzkik geroztik ez zuten etxetik ihes egin.*

# EDURNE

# ZURi









## 4. EDURNE ZURI

*Behin batez, gaztelu eder batean Errege bat eta erregina bizi ziren, eta haur bat jaio zitzaien... oso polita eta txuria zen, elurra bezalakoa.*

*Horregatik; Edurne-Zuri jarri zioten izena.*

ERREGINA:           “zulo, zulo, zulo txo  
zi-za-zi, zizaretxo,  
sagarra janez gero  
zer jango amonatzok...  
zulo, zulo, zulo txo.”

*Baina egun batez erregina ona hil zen.*

*Erregeak negar asko egin zuen.*

ERREGE:           Aaaaaiii! erregina hil da!  
Aaaaaiii! erregina hil da!

*Horrela, Edurne-Zuri amarik gabe gelditu zen.*

*Edurne-Zuri amarik gabe zegoen, eta orduan erregea beste emakume betekin ezkondu zen...*

AMORDEA:       Ni erregina berria naiz. Erregearekin ezkondu naiz.

*Erregina berria oso gaiztoa zen.*

AMORDEA:       Bai polita naizela!  
Ispilu, ispilutxo, esaidak, nor da politena?

ISPILUA:       Zu zara. Zu zara politena.

AMORDEA: Ja, ja, jaaaa!!

*Urte asko pasa ziren, eta Edurne-Zuri neska haundi eta polita egin zen.*

EDURNE: Edurne-Zuri naiz.

*Erreginak Edurne-Zuriren inbiria zuen. Horregatik galdetzen zion ispiluari...*

AMORDEA: Ispilu, ispilutxo, esaidak:  
nor da emakumerik politena?

ISPILUA: Orain Edurne-Zuri da politena.

AMORDEA: Aaaaahh!!  
Edurne-Zuri hilko dut eta ni izango naiz politena!  
...Benantzio!

MORROIA: Bai?

AMORDEA: Benantzio, Edurne-Zuri hartu eta basora eraman; eta han, hil ezazu!

*Morroia, penaz, neskatxaren bila joan zen eta basora eraman zuen marrubiak biltzeko aitzakiaz.*

MORROIA: Edurne-Zuri, hil egin behar zaitut.

EDURNE: Hil?

MORROIA: Bai. Erreginaren aginduz hil behar zaitut.

EDURNE: Mesedez, Benantzio, mesedez!

MORROIA: ...pena ematen didazu. Zoaz! Baina ez gehiago sekulan gaztelura itzuli, entzun?

*Edurne-Zuri bakarrik gelditu zen basoan.*

*Nora joango ote zen?*

*Beldurrez zegoen eta negar egin zuen... baina gero, han urruti, etxe txiki bat ikusi zuen.*

EDURNE Etxe bat!

*Edurne-Zuri etxe hartara hurbildu zen korrika, eta atea jo zuen.*

IPOTXA: Nor zara zu?

EDURNE: Edurne Zuri naiz. Galdu egin naiz.

IPOTXA: Sartu, sartu.

*Etxe hartan ipotxak bizi ziren.*

EDURNE: Zazpi ipotx!

IPOTXA: Gurekin bizi nahi al duzu?

EDURNE: Oso pozik!

IPOTXA: Gu basora joaten gara lanera.

EDURNE: Eta zer egigo dut nik?

IPOTXA: Zu hemen geldituko zara, etxea apaintzen.

EDURNE: Ederki.

IPOTXA: Goazen basora!

DENEK: "ai lo, ai lo  
basora lanera"

*Edurne zuri eta ipotxak oso pozik bizi ziren.*

*Baina gazteluan, erreginak...*

AMORDEA: Benantziok Edurne-Zuri hil du, ja, ja, ja!  
Orain bai, orain bai ni naizela politena...  
Ispilu, ispilutxo, esaidak,  
nor da orain politena?

ISPILUA: Edurne-Zuri da politena.

AMORDEA: Edurne-Zuri? Baina hilda dago eta!

ISPILUA: Ez. Edurne-Zuri zazpi ipotxen etxean bizi da.  
Bera da politena.

AMORDEA: Aaaaahhh!  
Edurne-Zuri hilko dut!  
Sagar honi pozoina sartuko diot.  
Edurne-Zuriri emango diot eta hil egingo da...  
Ja, ja, ja!!

*Erregina gaiztoa emakume xahar baten gisan jantzi zen.*

AMORDEA: Egun on, polit hori!

EDURNE: Nor zara zu?

AMORDEA: Amona xahar bat naiz. Ura nahi dut.

EDURNE: Edan, amonatxo.  
AMORDEA: Eskerrik askol Tori, sagar hau zuretzat.  
EDURNE: Oh! Eskerrik asko.  
AMORDEA: Jan, jan lasai, lasai...  
EDURNE: ...aaaaaaaaah!  
AMORDEA: Ja, ja, ja, jaaaa!!

*Gero ipotxak etorri ziren lanetik.*

IPOTXAK: Ai lo, ai lo, gure etxera goaz...  
IPOTXA: Edurne-Zuri... Hila da!

*Zazpirak nigarrez hasi ziren, oso goibel.*

*Hurrengo egunean, basoan printze bat ari zen pasiatzen, eta ipotxen etxera heldu zen.*

PRINTZEA: Oh, neska bat hilda!  
Bai polita dela!  
Muxu bat emango diot...  
EDURNE: Non nago?  
IPOTXEK: Piztu egin da! Bizirik dago! Biba, biba!  
PRINTZEA: Goazen gaztelura. Han ezkondu egingo gara. Nahi al duzu?  
EDURNE: Bai...  
IPOTXEK: Iupa!

*Bitartean, erregina gaiztoak...*

AMORDEA: Ja, ja, jaaaa! Sagarra jan du!  
Edurne-Zuri hil da!  
Orain bai, orain bai ni naizela politena!  
Ispilu, ispilutxo, esaidak:  
nor da emakumerik politena?  
ISPILUA: Edurne-Zuri da politena.  
AMORDEA: Baina, hilda dago eta!  
ISPILUA: Ez. Bizi da. Eta gaztelura dator printzearekin ezkon-  
tzera.



AMORDEA: Aaaaahhh! Edurne-Zuri hilko dut!

*Hurrengo egunez printzea eta Edurne-Zuri ezkondu egin ziren. Eta errege zaharrak printzeari bere koroa buruan jarri zion...*

*Erregina amorrus betirik zegoen, eta behin berriz Edurne-Zuri hil egin nahi izan zuen... baina ez zuen lortu...*

*Orduan, amordea gaiztoak ihes egin zuen betirako, eta ez zen gehiago gaztelura itzuli...*

*Eta denok oso pozik bizi izan ziren geroztik.*



# SAN JUAN SUA



Uda









## 5. SAN JUAN SUA (UDA)

*Ilargiaren azpian mendiek mila margo zituzten.*

*Ibiliz eta ibiliz amonamantalgorriak bide batera heldu ziren.*

4. AMONAM.:       Nekatuta nago! -esan zuen txikienak.

3. AMONAM.:       Baita ni ere!

2. AMONAM.:       Eta ni!

AMA:                Ongi dago –esan zuen amak– heman geldituko gara.

*Erreka ondoan bi lore elkarri muxuka zeuden.*

2. AMONAM.:       Ama, lore horiek muxuka daude...

AMA:                Eta zer? Ez da begiratu behar...

*Gau hartan belar gainean lo egin zuten lasai.*

*Hurrengo goizean usoak hegaka ari ziren zeru argitsuan.*

*Amonamantalgorriak, poliki-poliki, bidetatik joan ziren errenkan, bat bestearen atzetik.*

*Dortoka batzurekin topatu ziren.*

TXIKIA:            Kaixo. Zer moduz laurok?

DORTOKA AMA:    Nora zoazte?

AMONA AMA: Hiri batetara goaz, ziudadera.

BI: Ez dugu hiri bat sekulan ikusi eta...

TXIKIA: Goazen elkarrekin!

*Asko eta asko ibili ziren.*

*Zizare batek farre egin zuen horrelako talde bat ikustean...*

*Tren bat urrutitik pasa zen, ttaka-ttaka-ttaka-ttaka...*

DORTOKA: Ziudadera doa! Goazen bere atzetik!

*Tren-bidetik joan ziren, eta ilunabarrean fabrika batzuk ikusi zituzten, kea ta kea botatzen.*

*Ziudadeko auzoa oso itxusia zen, eta beltza.*

*Ez zegoen ez belarrik ez lorerik.*

*Gero etxeak oso haundiak egin ziren.*

*Denak berdinak ziren, antena askorekin.*

*Eta leiho pila batekin, denak pizturik.*

*Etxe baten aurrean egurrezko kaxa pila bat zegoen.*

DORTOKA: Bihar gauean su haundi bat egingo dute.

TXIKIA: San Juan gaua delako!

*Eguzkia piztu zenean berriz mendira joan ziren.*

DORTOKA: Ziudadea ez zait atsegin! Goazen!

*Pareteko zulo batean uso bat zegoen.*

*Eguraldia ederra zen eta txoriak itxas aldera zihoazen arroketan arrautzak uztera.*

*Txori batzuk beren gainetik hegaka joan ziren denbora pixka batez.*

*Triku batzuk pasa ziren buru gainean sagar banarekin.*

*Egun osoz ibili ziren.*

TXIKIA: Gosez nago, ama!

AMA: Hor etxe bat dago.

*Zelai artean etxe zahar bat zegoen.*

*Etxe hartako baratzara joan ziren.*

*Eta perrejil artean egon ziren lasai.*

–“Gaur gauetz suak piztuko dira baserri denetan!  
gaur urtearen egun luzeena delako...”– esan zuen  
altzipresak.

–“Gaur eguzkiak lurrari bere indarra emango dio  
horregatik piztuko dituzte suak  
eguzkiari bere laguntza eskatzeko.  
Ni lizarra naiz. Gaur gauetz etxeko atari guzietan nere  
ardaskak jartzen dituzte.

–Zergatik?

–Etxe horretan gaitza sar ez dadin.

*Gaua heltzen ari da.*

*Ilargia atera da.*

TXIKIA: Ama! Haur batzuk datoz!

HAUR BAT: Zer egur pila!

HAUR BI: Goazen sua piztera!

*Eta hurrek San Juan sua piztu zuten.*

*Poxpoloak.  
Egunkariak.  
Belar lehorra.  
Ardaskak.  
Sua!*

*Suaren inguruan dantza...  
Kea goruntz doa.  
Gau sakonean ilargia ageri da.  
Urtearen gau laburrena.  
San Juan gaua!*

*Uda!  
Uda etorri da!  
Txistua...  
Danbolina...  
San Juanen zortzikoa...  
Betiko ohiturak...  
Uda etorri da!  
Eguzkiak, oso pozik, lurbira berotuko du.*

TXIKIA: Bai polita dala uda!





QUANTO

MAU



Negua  
S





## **6. OLENTZERO GAUA NEGUA**

*Neguan gaude. Bihar gabon-gaua da, Olentzero gaua.*

*Ikastolako bosgarren mailako neska-mutikoak jaiotza prestatzen ari dira:*

*Zeruan ilargia eta aingeruak.*

*Zuhaitz bat.*

*Arkaitzak.*

*Goroldiloa.*

*Elurra bezalako irina.*

*Kaxa batekin egindako mendia.*

*Eta herritarrak beren opariekin.*

*Txabolan San Jose, idia, astoa, amabirjina eta haurra.*

*Goian aingerua.*

*Izarra.*

*Eta hiru erregeak.*

*Eta beste gauza gehiago:*

*Nekazariak beren animaliekin.*

*Erreka, zubia eta ahatak.*

*Eta artaldea bere artzaiekin.*

- ANDEREÑOIA: Oso polita geldituko da. Gero, bukatzean, Olentzeroa prestatuko dugu.
- AITOR: Zer ordutan aterako gara Olentzerorekin?
- ANDEREÑOIA: Hiruretan.
- AITOR: Urruti joango al gara?
- ANDEREÑOIA: Ahal dugun urrutienara.
- AITOR: Mikelen amari txotxongiloa egingo al diogu?
- ANDEREÑOIA: Horixe baietz! Panpiñak eramatea ez ahaztu. Eta orain, tira, lehenbailehen hau dena bukatzera!

*Olentzero gaua. Mendiko bidetatik haurrak Olentzerorekin, baserriz baserri abesten:*

*“Olentzero joan zaigu mendira lanera  
intentziuarekin ikatza egitera.  
Jakindu zuenian Jesus jaio zala  
laisterka etorri zen berri ematera”.*

*“Olentzero buru haundia, entendimentuz jantzia  
bart arratsean edan omen du hamar arruako zagia.  
Ai urde tripa haundia...  
sagar ustelez betia”...*

*Azkenean Mikelen baserrira heltzen dira.  
oso baserri pobrea da, ia txabola bat, bere aita hil zen eta.  
Mikel eta bere anai-arrebak atean daude zai.  
Ama sutondoan dago, eserita.*

- AMA: Sartu, sartu.
- ANDEREÑOIA: Zer moduz zaude, etxeokandere?
- AMA: Hemen gaude, min haundiz hanka honetan.
- ANDEREÑOIA: Eta sendagileak zer dio?
- AMA: Ez dakit, gauza onik ez... baina txarrena mina da.
- ANDEREÑOIA: Zerbait abesten badugu min gutxiago sentituko duzu?
- AMA: Horixe baietz!



ANDEREÑOIA: Tira ba!

*"Horra, horra gure Olentzero  
pipa hortzian duela exerita dago  
kapoiak ere baitu arrautzatxuekin  
bihar meriendatzeko botil-arduekin, botil-arduekin."*

AMA: Oso abesti polita da. Eta oso ongi abesten duzue.

HAURRA: Min gutxiago duzu orain?

AMA: Ia batere ez.

ANDEREÑOIA: Ba orain Jesusen jaiotza egingo dugu txotxongiloe-  
kin.

*Belengo herria. Gaua zen.*

MARIA: Ni Maria naiz.

JOSE: Ni Jose naiz.

MARIA: Jose, gaur Jesus jaioko da.

JOSE: Goazen etxeren batean ostatu eskatzera.

*Etxe batera joan ziren.*

JOSE: Ireki, mesedez!

BAT: Nor zara zu?

JOSE: Tokia behar dugu!

BAT: Alde hemendik!

*Beste etxe batera joan ziren.*

JOSE: Mesedez, ireki!

BI: Nor da?

JOSE: Tokia behar dugu, mesedez!

BI: Ospa hemendik!

JOSE: Lasai, Maria, etxe honetan sartzen utziko digute  
Ireki, mesedez!

HIRU: Nor da?

JOSE: Tokia, mesedez!

HIRU: Alde hemendik!  
JOSE: Mendian, lehen, kobazulo bat ikusi dut. Goazen hara, Maria!

*Eta kobazulo hartan Jesus jaio zen.*

MARIA: Bai polita dela!

JOSE: Jesus jaio da!

*Eta biak oso pozik jarri ziren.*

*Bi artzai mendian ziren,  
izar haundi bat agertu zen zeruan.*

BAT: Begira, begira!

BI: Izar haundi bat!

*Gero aingeru bat etorri zen.*

AINGERUA: Entzun! Jesus jaio da!

BAT: Non jaio da?

AINGERUA: Hor, Belenen, kobazulo batean.

BI: Goazen Jesus ikustera!

*Jesus bere amaren besoetan zegoen.*

*Artzaiak sartu ziren.*

MARIA: Zer nahi duzue?

BAT: Jesus ikusi.

BI: Tori esnea.

MARIA: Eskerrik asko.

BAT: Mendira goaz, ardiak zaintzera. Agur.

MARIA: agur.

*Olentzero mendian zegoen, ikatza egiten, lanean.*

OLENTZERO: Kaixo, olentzero naiz.

AINGERUA: Entzun! Jesus jaio da Belenen!

OLENTZERO: Ah, bai? Jesus ikustera noa.

*Lana utzi, ikatza hartu eta korrika doa.*

AINGERUA: Orain hiru erregeei esango diet.  
MELTXOR: Ni Meltxor naiz.  
GASPAR: Eta ni Gaspar.  
BALTASAR: Eta ni Baltaxar erregea.  
AINGERUA: Entzun! Entzun! Jesus jaio da Belenen.  
MELTXOR: Non dago Belen? Kanpotarrak gara.  
AINGERUA: Izarraren atzetik zoazte.

*Kobazuloan Jesus zegoen.*

OLENTZERO: kaixo, Jesus, Olentzero naiz. Tori ikatza.  
MARIA: Bertso bat kantatu, mesedez.  
OLENTZERO: "Haur txiki eder polit bat  
jaio zaigu gaur guretzat  
laisterka goazen danak  
Jesus adoratzera.  
Jesus, Maria eta San Jose"  
MARIA: Oso ongi, oso ongi!  
Oh, hiru errege! sartu, sartu.  
MELTXOR: Tori, Jesus, mirra zuretzat.  
GASPAR: Eta urrea.  
BALTASAR: Eta intzentsoa.  
MARIA: Eskerrik asko.  
OLENTZERO: Beno, ni banoa Jesus jaio dela denei esatera.  
MELTXOR: Eta gu bagoaz hurrei erregalia batzuk eskaintzera.  
OLENTZERO: Ah! ni ere zuekin noa, hurrei gauza politak ematera.  
GASPAR: Goazen ba!  
MARIA: Agur, lagunok.  
DENEK: Agur, agur."  
AMA: Oso polita!

HAURRA:           Eta hanka?

AMA:               Orain ez daukat minik.

HAURRAK:        luuupi!

AMA:               Horrelako gauza politak ikusi ondoren ez daukat minik, benetan.

HAURRAK:        luuuupi!




ANDEREÑOIA:    Etxekoandre, berandu da, alde egin behar dugu.

AMA:               Eskerrik asko benetan.  
Tori, errege-sagarrak eta intxaurrak biderako.  
Ez daukat besterik.

DENEK:            “Agur eskerrik asko, agur etxeoak  
hurrengo urte arte hemendik bagoaz. luuuuuup”

*Eta horrela, beste urte batez, Olentzero badoa, kantu eta algara artean, kalez-kale, baserriz-baserriz, Euskalerrian zehar.*





**KETEBI  
HERRIAN**



## 7. KETEBI-HERRIAN

*Bazen behin Ketebi-Herria.*

*Herri hartan denak adiskide ziren: pertsonak eta animaliak.*

*Denek elkar laguntzen zuten.*

*Baina ba al dakizue egun batez zer gertatu zen?*

ALKATEA: Egunon. Ni Ketebi-ko alkatea naiz.

EMAZTEA: Eta ni alkatearen emaztea naiz.

ALKATEA: Txapelketa bat egin behar dut.

EMAZTEA: Zer txapelketa?

ALKATEA: Ea herriko animalia ederrena zein den.

EMAZTEA: Oso ongi, oso ongi!

ALKATEA: Animalia ederrenari tarta haundi eder bat emango diogu.

EMAZTEA: Nik egingo dut tarta.

ALKATEA: Irratira deituko dut.

Trrrrrrrrr.

Irratia al da? Alkatea naiz.

Abisatu behar duzue txapelketa bat izango dela, ea herri honetako animalia ederrena zein den.

Saria tarta eder bat izango da. Agur.



*Hurrengo egunean:*

1. TXIKIA: Irratia entzun al duzu?
2. TXIKIA: Bai. Nork irabaziko du?
1. TXIKIA: Gure Txakurtxoak irabaziko du.
- TXAKURTXO: Uau uau uau.
2. TXIKIA: Irabazten baduzu, hiruren artean jango dugu tarta.
- TXAKURTXO: Uau uau uau!
- KUKURUTXO: Zer iruditzen zaizu txapelketa?
- PASADOREA: Oso sari ona da. Tarta bat!
- KUKURUTXO: Nik txapelketara nere mandoa eramango dut.
- PASADOREA: Ba nik nere zerria.
- KUKURUTXO: Irabaziko dut erraz!
- PASADOREA: Hori ikusiko dugu!
1. ABESTRUZA: Txutxita, txapelketa irabaziko dut .
2. ABESTRUZA: Ez, ez, Indalezio, nik irabaziko dut.
1. ABESTRUZA: Zuk? Bah! Nere hankak zureak baino politagoak dira.
2. ABESTRUZA: Baina nere lumak? Begira, begira!
1. ABESTRUZA: Bah! Luma exkax batzuk!
2. ABESTRUZA: Eta zure hankak hankaoker batzuk!
1. ABESTRUZA: Inbiria! Tonta bat zara!
2. ABESTRUZA: Eta zu gizarajo mokolo bat!
- ESPIRALA: Ahatetxo, txapelketa irabazi behar duzu!
- AHATA: Kua kua kua.
- ESPIRALA: Zumak garbituko dizkizut. Eta laxo bat lepoan jarriko. Irabaziko dugu!
- AHATA: Kua kua kua.
- ESPIRALA: Eta bien artean tarta jango dugu!



AHATA: Kua kua kua kua.  
TXAKURRA: Txapelketara joango al zarete?  
OILOA: Horixe baietz! Nik irabaziko dut!  
ANTXUMEA: Agian nik irabaziko dut...  
TXAKURRA: Zuk? Adar txepel-triste horiekin?  
OILOA: Nik irabaziko dut. Begira zer nolako gangorra!  
TXAKURRA: Gangor zahar tente bat... begira nere belarriak!  
OILOA: Aza baten hostoak dirudite...  
TXAKURRA: Irabaziko dut! Guau guau guau.  
OILOA: Irabaziko dut! koko ko koko koooo.  
ANTXUMEA: Agian nik irabaziko dut... beee beeee beeeeeee.

*Txapelketaren eguna etorri zen azkenean:*

ALKATEA: Andrea, bai al zatoz?  
EMAZTEA: Banoa, banoalaaa.  
ALKATEA: Oh, bai tarta ederra egin duzula! Bai sari ederra!  
EMAZTEA: Baina batek bakarrik irabazten badu, beste denak. inbiriaz geldituko dira, ez?  
ALKATEA: Egia da! Eta elkarren etsai bihurtuko dira!  
EMAZTEA: Zer egingo dugu?  
ALKATEA: Badakit! goazen!

*Txapelketa hasi zen:*

ALKATEA: Txapelketa hasten da. Lehenengoa!  
PASADOREA: Hau nire zerria Joakintxo da.  
ZERRIA: Grrrrrrr.  
ALKATEA: Isatsa oso gogorra. Urdaiak oso ederrak. Baina hankak oso motzak. Ez dago gaizki. Ikusiko dugu. Hurrengoa!  
TXAKURRA: Uau uau uau. Ni Lagun naiz.

ALKATEA: Ea belarriak. Zer zakur klase zara?

ZAKURRA: Ehize-zakurra.

ALKATEA: Ba zure sudurra oso txikia da ondo usaintzeko. Ikusiko dugu. Ikusiko dugu. Hurrengo!

KUKURUTXOA: Hau nire mando Fernandez da.

MANDOA: Mmmmmmmmm.

ALKATEA: Langilea al da?

KUKURUTXOA: Oso langilea. Ez da sekula nekatzen.

ALKATEA: Baina bere isatsa nahiko zakarra da. Ikusiko dugu. Ikusiko dugu. Hurrengo!

ANTXUMEA: Beeee. Txuri antxumea naiz.

ALKATEA: Txuri? Bai izen originala! Esne asko ematen duzu?

ANTXUMEA: Bai. Egunero bost litro. Oso esne txuria.

ALKATEA: Bai? Baina zure adarrak oso ahulak dira. Ikusiko dugu. Ikusiko dugu. Hurrengo!

1. TXIKIA: Hau gure txakurtxo Kixki da.

TXAKURTXO: Uau uau uau.

ALKATEA: A zer nolako zakur puska!

2. TXIKIA: Txikia da, baina bizia.

TXAKURTXO: Uau uau uau.

ALKATEA: Ixo! Ixo! Hori ahotsa! Trumoia dirudi!

1. TXIKIA: Irabaziko al du?

ALKATEA: Auskalo! Ikusiko dugu! Hurrengo!

OILOA: Kaixo. Kokoriko oiloa naiz.

ALKATEA: Arrautza asko jartzen dituzu?

OILOA: Arrautzak? Tira, gizon, ni oilo moderno bat naiz!

ALKATEA: Eta asko jaten duzu?

OILOA: Arto-ale bakar bat egunero. Ez loditzeko, ba al dakizu?

ALKATEA: Eta ko ko ko kooooo fuerte egiten al duzu?

OILOA: Bai zera! Nire eztarria zaindu egin behar dut!

ALKATEA: Ez dago gaizki, ez dago gaizki. Ikusiko dugu. Hurrengo!

EGURRA: Egunon. Hau nire zaldi Exteban da.

ZALDIA: llllllll.

ALKATEA: Ñooo! Zaldi honen gauza politenak hankak dira. Korri asko giten du?

EGURRA: Bai. Kristoren abailan ibiltzen da.

ALKATEA: Bai, eh! Ikusiko dugu, ikusiko dugu. Hurrengo!

ESPIRALA: Hau nire ahata Kaximira da.

AHATA: Kua kua kua.

ALKATEA: Arrautza asko jartzen dituzu?

AHATA: Kua kua kua kua.

ALKATEA: Zer esan du?

ESPIRALA: Hogeitarrautza egunero, esan du.

ALKATEA: Hainbeste? Baina mokoak zikina du... Ikusiko dugu. Ikusiko dugu. Hurrengo!

1. ABESTRUZA: leepa! Indalezio abestruz naiz.

2. ABESTRUZA: Eta ni Txutxita abestruza.

ALKATEA: Bixkiak al zarete?

BAT: Bai zera! Nire hankak askoz politagoak dira!

BI: Eta nire lumak askoz ederragoak!

ALKATEA: Ixo! Nik erabaki behar dut! Ikusiko dugu! Hurrengo!

EMAZTEA: Ez dago besterik...

ALKATEA: Oso ongi. Nork irabazi duen pentsatzera goaz. Oiloa... zaldia... antxumea... ahata... mandoa... zerria... txakurra... eta bi abestruzak... Denak oso ederrak zarete eta irabazi beharko zenukete.

EMAZTEA: Baina batek irabazten badu, beste denek inbiria izango duzue.

ALKATEA: Eta herri honetan guztiok lagunak izan behar dugu.

EMAZTEA: Horregatik erabakitzen dugu...

ALKATEA: Txapelketa denek irabazi duzuela.

EMAZTEA: Eta horregatik tarta hau...

ALKATEA: Denen artean jango dugula!  
Gora Ketebi-herria!

DENAK: Gora!!!

*Eta horrela Ketebi-herrian oraindik denak oso lagun dira.*



# ASTOR ET OTSOA





## 8. ASTOA ETA OTSOA

*Orain dela bost mila urte, otsoa eta astoa eskolan zeuden, zigortuta.*

- OTSOA: Jo! Beti zigortuta!
- ASTOA: Eskolaz nazka-nazka egina nago.
- MAISUA: Otso! Asto! Ixilik!
- OTSOA: Ez naiz gehiago eskolara etorriko.
- ASTOA: Ezta ni ere.
- MAISUA: Otso! Asto! Ixilik esan dut!...  
Komunera noa. Ixil-ixilik egon!
- ASTOA: Eh! entzun denok: ni ez naiz gehiago eskolara etorriko.
- BAT: Eta non ikasiko duzu?
- ASTOA: Bah! Dena dakit!
- OTSOA: Astoa eta biok mundua ezagutzera goaz.
- BI: Zertarako?
- ASTOA: Lagun berriak egiteko.
- OTSOA: Nork nahi du gurekin etorri?
- DENAK: Nik ez...  
Nik ez...

ASTOA: Aj! Beldurti batzuk zarete!  
OTSOA: Ikusiko duzue!  
ASTOA: Utzi iezaiezu pakean. Lagun txar batzuk dira. Goazen!  
BIAK: Agur, ergelok!

*Eta horrela, orain dela bost mila urte otsoa eta astoa mundua ezagutzera joan ziren.*

ASTOA: Bost egun gelditu gabe ibiltzen... nekatua nago.  
OTSOA: Eta oraindik ez dugu inor ikusi.  
ASTOA: Gosez nago.  
OTSOA: Gosez nago.  
ZIZAREA: Eh, entzun!  
ASTOA: Nor zara zu?  
ARRA: Ar bat naiz. Zizare bat. Bakarrik nago. Nire lagun izatea nahi al duzue?  
ASTOA: Jateko zerbait ba al duzu?  
OTSOA: Gosez gaude...  
ARRA: Belarra jan nik bezala.  
OTSOA: Belarra? Puag! Neri haragia gustatzen zait.  
ASTOA: Eta neri lastoa, ergela!  
ARRA: Ba, nere lagun izatea nahi ez ba duzue, banoa. Agur.  
OTSOA: Agur.  
EGUZKIA: Oh, bi atzerritar! Belarriak berotuko dizkiet. Tori beroa!  
ASTOA: Uff, nola berotzen duen eguzkiak!  
OTSOA: Egarriz nago.  
ASTOA: Ni ere egarriz nago. Eguzki madarikatua!  
OTSOA: Zure amona berotu ezazu, ergela!  
ASTOA: Horrants igotzen banaiz...



EGUZKIA: Ah! Ez duzue nire lagun izan nahi? Orain ikusiko duzue!  
Euri! Euri!

EURIA: Zer nahi duzu, eguzki?

EGUZKIA: Bi horiek mingaintzar batzuk dira. Bota!

EURIA: Oraintxe bertan. Tori ura!

BIEK: Sokorro! sokorro!

ASTOA: Uy, blai egina nago.

OTSOA: Eta ni... busti-bustia... aaaaiiii.

PATATA: Zer duzue, hain triste?

ASTOA: Nor zara zu?

PATATA: Ez duzu ikusten? Patata bat naiz.

OTSOA: Patata bat? A zer zikinkeria!

PATATA: Zikinkeria? Zu bai, ilez beterik!

ASTOA: Busti-bustirik nago. Uzten didazu zure etxean lehortzen?

OTSOA: Asto: asto bat zara! Ez al dakizu patatak lur-azpian bizi direla?

PATATA: Bai, eta lur azpian oso bero egoten da. Nirekin etortzen ba zarate, lagun izango gara.

ASTOA: Zurekin, mari-itxusi?

OTSOA: Zoaz hemendik, patata-tortilla!

PATATA: Bi hauek burutik seko gaizki daude...

OTSOA: Attxiss.

ASTOA: Attxiss.

OTSOA: Hotzez nago...

ASTOA: Hotzez nago...

MARZIANO: Kaixo. Zer moduz?

ASTOA: Euriak busti egin nau.

OTSOA: Hotzez gaude...

MARZIANOA: Etorri nere etxera. Han ez dago hotzik.

ASTOA: Non bizi zara?

MARZIANOA: Marten. Marzianoa naiz. Zuen lagun izatea nahi dut.

OTSOA: Marziano baten lagun izan? Bah!

MARZIANO: Etorri nerekin. Nere platillo-bolantean joango gara.

ASTOA: Trasto zahar horretan? Utikan!

OTSOA: Zoaz hortik, aldrebesa!

ASTOA: Ilargiari goraintziak! Ja, ja, jaaaaaaa.

OTSOA: Aizu, munduan zehar ibiltzez aspertzen hasia naiz...

ASTOA: Ez dugu lagun jatorrik aurkitzen eta...

OTSOA: Eh! Norbait dator!

ORDULARIA: Tik tok tik tok.

ASTOA: Ordulari bat!

OTSOA: Zer egiten duzu hemen?

ORDULARIA: Despertadore bat naiz. Haur batzuk esnatu behar ditut.  
Baina galdu egin naiz. Tik tok tik tok.

ASTOA: Tik tok tik tok.

ORDULARIA: Nire lagun izatea nahi ba duzue, goizetan esnatuko zaituztet. Tik tok tik tok.

OTSOA: Esnatu? Ez horixe!

ASTOA: Alde hemendik, baboa! Zure amona esna ezazu!

OTSOA: Despertadore baten lagun izan... hori bakarrik falta zaigu!

ASTOA: Uf! Hau gose gorria!

OTSOA: Ez! Zer da hori?

ASTOA: Poto bat da!

OTSOA: Tomato-poto bat izango da? Aaaaammmmm.

ASTOA: Edo melokotoi-potoa!

OTSOA: Edo piper-potoa!

ASTOA: Edo azeituna-potoa!

OTSOA: Hau gosea... Aaaaaa.

POTOA: Arratsaldeon.

OTSOA: Holaaaaa.

ASTOA: Nor zara zuuu?

POTOA: Poto bat naiz.

OTSOA: Baina zer duzu barruan? aaaammmm.

POTOA: Pintura gorria.

ASTOA: Pintura gorria?

POTOA: Bai. Nire lagun izango al zarete?

OTSOA: Ezzzz.

ASTOA: Alde hemendik! Ospaaa!

POTOA: Ez dut ulertzen. Hasieran hain sinpatikoak eta orain...

ASTOA: Pintura potoa...

OTSOA: Hau gosea!

ASTOA: Begira! Beste bi datoz!

PLATERA: Zer duzue, hain triste?

OTSOA: Gosez nago.

ASTOA: Gosez nago.

ELTXETXOA: Etxerik ez duzue?

OTSOA: Alde egin dugu.

ASTOA: Ez dugu eskolara joan nahi.

PLATERA: Gu orain goaz eskolara.

ELTXETXOA: Han lagun asko ditugu.

PLATERA: Etorri gurekin.

OTSOA: Platera eta eltxetxu batekin? Uffff.

ASTOA: Ez, eskerrik asko!

ELTXETXOA: Orduan agur. Eskolara goaz. Lara la la laaaa.

ASTOA: Oso pozik daude.

OTSOA: Eta eskolara joaten bagara gu ere?

ASTOA: Ikastera? Selulan ez!

OTSOA: Ah! Begira hori!

GORPUTZA: Aizue, nire burua ikusi al duzue?

OTSOA: Bai, hortik joan da.

GORPUTZA: Ah! Harrapatzera noa!

ASTOA: Bai gauza arraroa...

OTSOA: Zer gertatzen zaio zure buruari?

GORPUTZA: Ezer ez. Pixu txikia du eta hegaka ihes egiten dit.

ASTOA: Eta zergatik du hain pixu txikia?

GORPUTZA: Hutsa dagoelako. Ez dut ezer ikasi nahi eta horregatik hutsa dago eta hegaka ihes egiten dit.

OTSOA: Ba, zerbait ikasi eta pixu gehiago edukiko du.

GORPUTZA: Ikasi? Buffff!...  
eh, berriz? Eeeeeeh! eeehhh!

ASTOA: Otso, ikasten ez badugu, gure buruak ere eskapo egingo al digu?

OTSOA: Nerea behintzat ongi lotuta dago.

ASTOA: Eta nereak pixu haundia du...

OTSOA: Baina: ...bada ez bada ere...zergatik ez gara berriro eskolara joaten?

HANKAK: Pun pun pun.

ASTOA: Eh! Entzun! Zer da hori?

HANKAK: Pun pun pun.

OTSOA: Zer da hori?



ASTOA: Ez dakit...

HANKAK: Pun pun pun.

BIAK: Aaiiiii...Hau beldurra...

GIZAUNDIA: Aaaaaaah!

BIAK: Sokorrooooo!

GIZAUNDIA: Nor ari da hor behean hizketan? Jo jo jo, asto bat! eta otso bat!

BIAK: Sokorroooooo!

GIZAUNDIA: Zer ari zarete, ipotxok?

ASTOA: Ba...gu...

OTSOA: Zera...ikastera ez genuen nahi eta... eskolatik alde egin dugu.

GIZAUNDIA: Ongi egina, jo jo jo.

OTSOA: Mundua ezagutzea nahi genuen...

ASTOA: Eta lagun berriak aurkitzea...

GIZAUNDIA: Lagun berriak? jo jo jo...nire lagun izango zarete, jo jo jo...eh? Nahi al duzue?

ASTOA: Zera...ba...nik nahiago dut eskolara joan.

OTSOA: Eta nik lehengo lagunak ditut.

GIZAUNDIA: Ez duzue nahi, eh? Nire lagun ez, eh? Nazkagarriak! Alde! Ospa! Alde hemendik! Baina berriz etortzen bazarete, nire bota haundiekin zanpa-zanpa egingo zaituztet. Ospa! Ospa! Aaaaaaaa.

ASTOA: Aaaaai, hau kolpea! Ai, nire besoa! aaaaaaaai.

OTSOA: Burua bueltaka daukat... ai, nire ipurdia!

ASTOA: Ai, a zer beldurra pasa dudana!

OTSOA: Gure etxera itzuliko gara, asto?

ASTOA: Gure lagunak zai egongo dira, ez?

OTSOA: Ziur baietz. Goazen!

ASTOA: Goazen!

*Eta horrela, biak berriz eskolara joan ziren.*

MAISUA: Otso, bost eta bost!

OTSOA: Hamar.

MAISUA: Asto! Hiru eta hiruz?

ASTOA: ...Sei...

MAISUA: Oso ongi. Laister gelako jakintsuenak izango zarete.  
Txalo bat otsoarentzat eta astoarentzat.

*Eta handik aurrera betiko lagunekin ibili ziren.*



# MATEO THISTU









## 9. MATEO-TXISTU (UDAZKENAREN HAIZEA)

*Gaztainak lurrera erortzen ari dira.*

*Eta artoa hori jarri da.*

*Azkeneko loreak usaintzen ditugu...*

*Kabiak huts daude...*

*Belar gainean hostoak...*

*Piku gozoak...*

*Intxaur helduak...*

*Ehize-garaia da.*

*Uda joan da.*

*Negua oraindik ez da iritsi.*

*Udazkenean gaude.*

GIÑOLA:                   San Martin inguruan haizea nagusi...ja ja ja...  
Mendira udazkenean joan zaretenean, ez al duzue  
sekulan  
entzun haize-txistu bat eta txakurren zaunka?  
Ja ja jaaaaa!

*Baserri batean, aspaldi, Mateo txikia bere sendibarruan bizi zen.*

*Mateo oso bizkorra zen, asko ikasten zuen.*

*Arratsalde batez, ikasten ari zenean, mahai gainean lotan gelditu zen, eta ixil-ixilik deabrutxo bat sartu zen.*

DEABRUTXO: Mateo!

MATEOTXO: ...

DEABRUTXO: Etorri nirekin.

MATEOTXO: Nora?

DEABRUTXO: Inpernura.

MATEOTXO: Inpernura?

DEABRUTXO: Deabru Jaun Galtxagorrik zurekin hitzegitea nahi du.

MATEOTXO: Goazen!

*Eta asko ibili ondoren inpernura heldu ziren.*

*Deabru Jaun galtxagorri azaldu zen:*

DEABRUA: Kaixo, Mateo. Sartu, sartu.

MATEOTXO: Zer nahi duzu, Galtxagorri?

DEABRUA: Zu oso bizkorra zara, ez?

MATEOTXO: Hori esaten du maixuak.

DEABRUA: Nahi baduzu orain ni izango naiz zure maixua.

MATEOTXO: Zer irakatsiko didazu?

DEABRUA: Pikardi pilo bat. Gaiztakeria asko.

MATEOTXO: Zergatik?

DEABRUA: Horrela, hiltzen zarenean, hona etorriko zara betirako. Eta bien artean gaiztakeria asko egingo dugu. Ja ja jaaaaa.

DEABRUA: Ja ja jaaaaaa.

*Mateok, deabruarekin, gauza asko ikasi zuen inpernuan.*

*Eta egun batez:*

DEABRUA: Mateo, den-dena irakatsi dizut. Orain zoaz zure herrira eta gaiztakeriak egin. Eta hiltzen zarenean, hona etorri. Ulertu al duzu?

MATEOTXO: Bai, bai.  
DEABRUA: Orain, agur, Mateo, eta gaiztoa izan.  
MATEOTXO: Agur, agur, Galtxagorri jauna!

*Eta horrela Mateo bere etxera itzuli zen.*

*Baina oso ona izan zen.*

*Eta gero apaiz egin zen.*

*Apaiz bezala herri txiki-txiki batetara bidali zuten.*

MATEO: Bai herri txikia! Bai aspergarria!

*Ez aspertzeko kartutxoak erosi zituen.*

*Kartutxera bat, eskopeta bat, eta gero txakur pilo bat ikusi zuen, batzuk erosteko asmoz.*

MATEO: Txakur onak nahi ditut. Eize-txakur onenak. Horiek oso txarrak dira.

*Ehiztari batekin hitz egin zuen.*

*Ehiztariak hiru txakur saldu zizkion:*

*"Elke", konejuak arrapatzeko.*

*"Ria" oilagorretarako.*

*Eta "Uro", galeperretarako.*

*Oso zakur bizkorak ziren.*

*Handik aurrera Mateo beti ehizera joaten zen bere zakurrekin.*

*Baina inpernuan deabru jauna oso haserre zegoen:*

DEABRUA: Mateo madarikatua! Gaiztoa izan ordez, apaiz egin da. Ikusiko du! Deabrutxo!

DEABRUTXO: Zer nahi duzu, deabru jauna?

DEABRUA: Mateo gaiztoa izatea nahi dut!

DEABRUTXO: Eta nola lortuko duzu hori?

DEABRUA: Meza ematen ari den bitartean, erbi bat bota elizan!

DEABRUTXO: Eta gero?

DEABRUA: Ba, Mateo, meza eman ordez, eskopetarekin joango dela erbiaren atzetik. Eta horrela apaiz txarra izango da!

DEABRUTXO: Ja ja jaaaaaaa!

*Deabrutxoa erbi bat hartu eta Mateoren elizara joan zen.*

*Jendea elizan zegoen.*

*Mateo meza ematen ari zen.*

MATEO: Eh? Zer entzuten dut? Nere txakurrak zaunkaz?

*Hiru txakurrak erbi haundi baten atzetik zetozen.*

MATEO: Ziur nago nere txakurrek erbi bat ikusi dutela... eta ni hemen, meza ematen...

*Erbia, iheska, elizan sartu zen.*

MATEO: Hori erbi puska! Eskopeta! Eskopeta!

*Eskopeta hartu zuen, eta ero bat bezala...*

MATEO: Ria! Elke! Uro! Kooooorrrri!

*Eta bere hiru txakurrekin erbiaren atzetik joan zen.*

*Baina korrika zihoanean:*

DEABRUA: Mateo!

MATEO: Deabru jauna!

DEABRUA: Nora zoaz, Mateo?

MATEO: Ba...ba...ni...zera...

DEABRUA: Meza bukatu al duzu?

MATEO: Ba...ba...ni...zera...

DEABRUA: Zera ta zera! Apaiz ona zaude zu!

MATEO: Ba...ni...

DEABRUA: Gaiztoa izan zara, Mateo! Zigorra merezi duzu!

MATEO: Mesedez, Galtxagorri, mesedez!

DEABRUA: Zer mesedez ta zer kaka-zarra! Zigor hau emango dizut:  
Hemendik aurrera  
buelbaka ibiliko zara  
haizetan txistuka



gelditu gabe zure zakurrekin.  
Haizetan beti  
txistuka.  
Hemendik aurrera  
"Mateo-Txistu" izango zara. Ja ja jaaaaaaaaa!

*Eta geroztik Mateo-txistu hor dabil.  
Euskalerrian zehar.  
Haizetan txistuka.  
Bere hiru zakurrekin.  
Udazkenean.*



# INAUTERIK



Udaberriaren zai





## 10. INAUTERIAK (UDABERRIAREN ZAI)

*Negua luzea da.  
Negua. Neguaaaaa.*

*Udaberria bidean dago.  
Baina ez da oraindik iritsi.*

1.GIÑOLA: Udaberriaren zai gauden bitartean, negua laburtzeko, inauteriak ditugu.

2.GIÑOLA: Zer dira inauteriak?

*Antton honelakoa da.  
Baina horrela ibiltzen da udan.  
Horrela udazkenean.  
Horrela neguan.  
Udaberria etorri baino lehen, inauterietan, Antton horrela jantzi da.*

2.GIÑOLA: Noiztik dira inauteriak?  
dulun...dulun...dulun...

*Bazen behin artzai bat,  
Bazen behin ardi bat.  
Bazen behin otso bat.*

ARTZAIA: Bai negu luzea! Beti ardiak zaintzen! Beti otsoaren beldurrez! Neguan otsoa gosez dago, mendian. Gaez ixil-ixilik dator, ardiak lapurtzera. Noiz etorriko da udaberria?

*Eta belarra berriz jaio zenean, artzaiak, pozik, menditik herrira jetxi ziren dibertitzera.*

*Larrua.  
Ttuntturro bat.  
Zintzarri edo joareak edo polunpak.  
Isopoa.  
Bera da! Iturengo joaldunak!  
Zubietako ttuntturroa!*

1.GIÑOLA:           Eta zu? Nor zara zu?

*Ziripot da! Lantzeko ziripot!  
Ziripot...ziripottttttt.*

1.GIÑOLA:           Eta zu? Nor zara zu?

*Mielotxin da!  
Mielotxin...Mielotxinnnnnnn.*

1.GIÑOLA:           Eta zuek? Nortzuk zarete zuek?

*Txantxoak dira! Mozorratuak!  
Txantxo mala kasta, ipurdian bakasta.  
Txanto pikarda, kolkoan ardoa.*

1.GIÑOLA:           Eta hauek? Zer gertatzen da hemen?

*Markitos...Markitos da!  
Zalduendo...  
Arabako Zalduendon gaude.*

3.GIÑOLA:           Inauterietan, jendea dibertitzen da.

3.GIÑOLA:           Gauza txarrez ahaztutzeko.

3.GIÑOLA:           Gauza itsusiez ahaztutzeko.

*Dibertittu...dibertittu...dibertittu...*

4.GIÑOLA:           Lehen, aspaldi, munduan, jendea ez zen orain bezala  
jazten.

5.GIÑOLA:           Lehen jendea horrela jazten zen.

4.GIÑOLA:           Lehen, aspaldi, Euskalerrian, jendea ez zen orain  
bezala jazten.

5.GIÑOLA:           Lehen euskaldunak horrela jazten ziren.

6.GIÑOLA:           Orain, inauterietan, nola jazten gara?

1.HAURRA:           Ni Drakulaz jantziko naiz.

2.HAURRA:           Ni hawaianaz.

- 3.HAURRA: Ni neskaz jantziko naiz.
- 4.HAURRA: Eta ni gizon gisan.
- 5.HAURRA: Ni tximeleta bat izango naiz.
- 6.HAURRA: Eta ni txina bat!
- 7.HAURRA: Ba ni charleston garaiko neska bat.
- 8.HAURRA: Ni fantasmaz jantziko naiz.
- 9.HAURRA: Ni sorgin jantzita ibiliko naiz.
- 10.HAURRA: Eta ni pailazoz.
- 11.HAURRA: Ni, aurpegia estaliz, beste norbait izango naiz.
- 5.GIÑOLA: Bihar berriz eskolara!
- 4.GIÑOLA: Bihar berriz lanera!
- 5.GIÑOLA: Baina gaur inauteriak!

*Gizakunde.*

*Emakunde.*

*Orakunde.*

*Ostegun gizen.*

*Zaldunita.*

*Astelenita.*

*Asteazkita.*

- 6.GIÑOLA: Goazen dibertitzera!
- GARIZUMA: Garizuma naiz. Ez jan! Ez edan!
- GARIZUMA: Ez da dibertittu behar!
- GARIZUMA: Asteazken honetan, buru gainetik hautsa bota!
- HAURRA: Alde hemendik, garizuma! Itxusia!
- GARIZUMA: Banoala...banoala...
- HAURRAK: Ja ja jaaaaaaa.
- GARIZUMA: Ez da dibertittu behar! Deabrua etorriko zaizue!  
Deabrua!!!  
Dulun...dulun...dulun...
- ARTO-MUTILA: Etsaiak kanpora! Deabrua...otsoa...heriotza...ospa he-  
mendik.

*Ospa hemendik...ospa hemendik...*


- GARIZUMA: Ez da edan behar!
- MOXKORRA: Ez da edan behar? Hemendik ez behintzat... Hutsa zegok!  
"Ai zagia, zagia, zagia, ai zagia hustu da..."
- NESKA: Eh! Inauteriak dira! Goazen dibertitzera!
- TXANTXOA: Laister udaberria! Negu gaiztoa bukatzera doa!
- ARTO-MUTILA: Deabrua...gosea...otsoa...heriotza...ospa hemendik!

*Ospa hemendik...ospa...ospa...*

*dulun...dulun...dulun.....*



AAAAAAH!



**TARZAN**



## 11. TARZAN

*Arratsalde batez, mutiko eta neska talde bat bilduta zegoen.*

- BAT: Buff! Aspertuta nago!
- BI: Ni ere bai...
- BAT: Goazen futbolean jolastera...
- BI: Buff!!
- BAT: Goazen mendira, pasiatzera...
- BI: Buff!!
- BAT: Eh, hi, goazen antzerkia egitera!
- BI: Zer antzerki?
- BAT: Tarzanen antzerkia!
- BI: Bale!
- BAT: Goazen lagunei deitzera... Eh, etorri, etorri!

*Lagun denak bildu ziren, eta Tarzanen antzerkia egitea pentsatu zuten.*

- BAT: Ni Tarzan izango naiz.
- BI: Eta ni Txita.
- BAT: Eta zuek beltzak  
eta zu neska

zuek tximuak  
zu semea  
eta zu kontalaria.

KONTALARIA: Goazen dena prestatzera!

*Eta horrela, Tarzanen antzerkia egiteko prestatu ziren.*

KONTALARIA: Prest al zaudete? Hasiko al naiz?

*Jaun andreok, oihanean gaude. Hegazkin bat etorri da eta erori egin da...*

*Eta haur bat bakarrik salbatu da.*

*Galduta dago. Zer egingo ote du bakarrik?*

*Zer jango ote du?*

TARZANTXO: Aaaaai!  
(Txitak platano bat ematen dio).

KONTALARIA: Bi, tximu bat da, platano batekin...  
Har ezazu platanoa, Tarzantxo...  
(hartzen du, Txitak eskua ematen dio).

*Tira, zoaz tximuarekin selba bisitatzera...*

KONTALARIA: Bigarren zatia. Urte batzuk pasa dira.  
(Tarzan Txitarekin sartzen da).

*Tarzan hazi egin da. Eta oso indartsua da...*

*Animalia denak bere lagunak dira: lehoiak, elefanteak...*

TARZAN: Aaaaaaaaaaaaaaaaaahh!!

KONTALARIA: Egun batez, selbara neska bat agertu zen.

NESKA: (Negarrez) Aaaaahh!

TARZAN: Oh, neska bat! ...Nola arraio etorri zara selbara?

NESKA: Nire aita esploradorea da. Elefanteak harrapatzera etorri gara, eta ni galdu egin naiz. Aaaaaiiii!

TARZAN: Lasaitu zaitetz, neska... Nirekin biziko zara.

NESKA: Oh!...

KONTALARIA: Hirugarren zatia. Egun asko pasa dira.

NESKA: Pitxitxi nerea...



TARZAN: Nire bihotzeko potxola... (musuak).

KONTALARIA: Eta halako batean neskak haur txiki bat eduki zuen.  
*Oso mutiko polita zen. "Boy" jarri zioten izena.*

KONTALARIA: Laugarren zatia. Boy hazten ari da.

TARZAN: Laister nirekin joango zara panterak harrapatzera.

NESKA: Oh, oso txikia da oraindik...

TARZAN: Fruta bakarrik jaten du eta... Elefantearen hankak ere jan behar lituzke. Jan!

BOY: (Ez du jan nahi).

TARZAN: Jateko! (bultzada bat).

BOY: Buaaaa!

NESKA: Asto bat zara!

TARZAN: Nazkatuta nago! Txitarekin noa pasiatzera! Brrrr...

NESKA: (Mutikoari) Ergel bat zara! Zure erruz Tarzan haserretu egin da... Tira, ariketak ikastera... Bi eta bi? (mutikoak keinuak).

NESKA: Ederki... Hiru eta hiru?

BOY: .....

NESKA: Hiru eta hiru?

BOY: (Negarrez).

NESKA: Ixo, ixo, ikasiko duzu, maitea...

*Eta han zeudela, beltz salbaje batzuk agertu ziren.*

NESKA: Sokorrooo! Sokorrooo, Tarzan!

TARZAN: Aaaaaah!!  
(borroka).

TARZAN: Ospa hemendik! ...Ospa hemendik! Zoazte kaka egitera!

NESKA: Oh, Tarzan, bai indartsua zarela! ...Oh, hemen odola duzu!  
Mua, mua...

TARZAN: Goazen siesta egitera... Eta zu, Boy, tximuekin jolastu zaitetz.

KONTALARIA: Azeneko zatia. Urte asko pasa dira, eta haur asko jaio dira.

TARZAN: Zahartzen ari naiz.

NESKA: Eta ni errenka nabil.

TARZAN: Baina gure semeren bat oso famatua izango da.

NESKA: Eta telebistan aterako da.

TARZAN: Haurrak! Aaaaaaaaaaaaahh!  
(lasterka datoz).

NESKA: Bat... bi... hiru... eta bestea?


TARZAN: A zer kuadrilla!  
Zuetako nor izango da oso famatua?

SEMEEK: ni... ni... ni...

TARZAN: Baina horretarako gimnasia asko egin behar da. Tira, egunero bezala... Lerroan!! Bat, bi, bat, bi, bat, bi...

KONTALARIA: Tarzan ehun urterekin hil zen.  
Eta bere seme bat famatua egin zen eta gaur euskal telebistan ateratzen da...  
ta hemen bukatzen da antzerkia. Txalo bero-bero bat!

# MARIZIKIN









## 12. MARI-ZIKIN

*Emakume hau "Kondesa de Nahinuke" da.*

*Eta hau bere alaba Pilutxi.*

*Neska hau Ainhoa da.*

*Pilutxi oso alferra zen; eta goxoki-zalea.*

*Etxeko lan denak Ainhoak egin behar izaten zituen.*

AMA: Nire zapatak garbitu!

AINHOA: (garbitzen ditu eta aurpegia zikintzen betunez).

AMA: Beltz-beltza zaude! Pufff! Mari-Zikin bat zara!  
(txintzarria entzuten da).

AMA: Atea da. Ireki!

*Erregearen aguazilla sartu zen eskutitza batekin.*

AMA: Pilutxi! Pilutxi! Entzun: "Erregearen partetik: gaur dantza bat dago palazioan. Etorri! Oh! Printzearekin dantza egingo duzu!

*Ama eta alaba gauzak prestatzen hasi ziren:*

*Arropak, zapatak, burukoak... denetik.*

AMA: Ah! Bai polita zaudela! Printzea txoratuta geldituko da.  
Goazen!

AINHOA: Eta ni?  
AMA: Zu? Mari-Zikin bat zara! ...Hau dena jasotzera, entzun?  
Eta komuna garbitzera, entzun?  
Eta dena plantxatzera, entzun? Entzun, entzun, entzun?  
Goazen. (badoaz).

*Ainhoa oso triste gelditu zen...*

MAITAGARRIA: Ainhoa!  
AINHOA: Nor zara zu?  
MAITAGARRIA: Maitagarri bat naiz. Oso zintzoa zarelako, lagundu egingo dizut erregearen dantzara joateko...  
Begira aulki hori.  
(jantziak agertzen dira)  
AINHOA: Aaah!  
MAITAGARRIA: Begira mahaia...  
(jantziak agertzen dira).  
MAITAGARRIA: Zoaz dantzara. Baina entzun ongi: gaueko hamabietan nire erregalia hauek desegin egingo dira. Horregatik, hamabietan hemen egon, etxean.  
Agur, Ainhoa, eta ona izan...

*Ainhoa osa dotore jantzi zen eta korrika palazioara joan zen.*

*Palazioan erregearen semea Pilutxirekin dantzatzen zegoen...*

*Ainhoa sartzean, printzea xoratuta gelditu zen...*

*Ainhoa eta printzea gau osoan dantzan aritu ziren...*

AINHOA: Zer ordu da?  
PRINTZEA: Hamabiak oraintxe.  
AINHOA: Ohhh! (ihes egiten du).  
PRINTZEA: (atzetik) Eeeeeh! Eeeeeeh! Neska!  
(zapatarekin dator).  
Neska horren zapata! Galdu egin du! Bai zapata txikia!

*Ainhoa korrika bere etxera joan zen...*

*Gero ama eta Pilutxi itzuli ziren...*

AINHOA: Zer moduz ibili zarete?

AMA: Aaah! Oso ongi! Printzeak Pilutxirekin dantza egin du gau osoan.

AINHOA: Benetan?

AMA: Benetan! Ziur aski, berarekin ezkonduko da...

PILUTXI: (abestuz eta dantzatuz) La-ra-la...la ra...

*Hurrengo egunean aguazilla etorri zen...*

AMA: Ainhoa! Atea! ...Ainhoa!...

AGUAZILA: Atzo, palazioan, neska batek zapata galdu zuen...  
Printzea neska horrekin ezkonduko da...  
Hemen bizi al da?

AMA: Bai, bai... hemen bizi da! Pilutxi! Pilutxi!  
(eseri eta probatzen).

AGUAZILA: Ez da sartzen...

AMA: Bultza! Bultza!

AGUAZILA: (probatzen) Ez da sartzen...

AMA: Bultza! Bultza!

AGUAZILA: Hanka haundia da. Zapata txikia. Ez da zurea.

PILUTXI: Aaaaaai (nigarrez).

AGUAZILA: Beste neskaren bat bizi al da hemen?

AMA: Ez, ez, ez... Pilutxi bakarrik.

AGUAZILA: Orduan agur (erreberentzia).

*Baina aguazila irtetzerakoan Ainhoa sartu zen.*

AGUAZILA: Beste neska bat! ...Eseri.

AMA: Ez, honi ez! Mari-Zikin bat da!

AGUAZILA: Alde!... Eseri... Ez, hanka, mesedez...  
(probatuz).

DENOK: Ooooh!  
(beste zapata probatuz).

DENOK: Ooooooh!  
(Pilutxi eta kondesa xorabiatuak).

*Printzea eta Ainhoa elkarrekin ezkondu ziren...*

*Eta haur asko izan zituzten...*

*Eta beti, beti zoriontsu bizitu ziren...*



# ZORRIAREN LARRUA





### 13. ZORRIAREN LARRUA

*Behin batez. Hungriako erregina bere alabari ilea orrazten ari zen.*

- ALABA: Kontuz, ama, min ematen didazu!
- AMA: Eh! Zer da hau? Zorri bat!
- ALABA: Ea nolakoa den.
- AMA: Nolakoa izango da? Nazkagarria!
- ALABA: Oso polita da.
- AMA: Hil egin behar dut atzazkalen artean.
- ALABA: Ez, ama. Kaxa batetan gordeko dut.
- AMA: Zorria gorde? Ezta pentsatu ere!
- ALABA: Aaaaai. Etxetik alde egingo dut betirako, aaaaaaaai.
- AMA: Tira, tira, ixo. Goazen zure aitari galdetzera.

*Erregina eta alaba, erregearengana joan ziren.*

- ERREGEA: Zer gertatzen da?
- AMA: Zure alabaren ilean zorri bat aurkitu dut.
- ERREGEA: Eta zer?
- ALABA: Kaxa batean bizirik gorde nahi dut.

ERREGAEA: Zorri bat kaxa batean?  
ALABA: Eta kilkir bat kaiola batean bai? Eta arrain bat kristalezko ontzi batean bai?  
ERREGAEA: Arrazoi duzu. Gorde zure zorria. Zer jango du?  
ALABA: Denetik emango diot: letxuak, patata egosiak...  
AMA: Txorizo frijitu... lodi-lodia jarriko dugu.

*Baina egun batez zorria hil egin zen.*

ALABA: Aaaaaaiiii.  
AMA: Ixo, alaba, ixo!  
ALABA: Aaaaai, nire zorri maitea...  
AMA: Denok hil behar dugu, badakizu.  
ALABA: Ai, ai, ai... nire zorria... Jan eta jan, jan eta jan, Txerri txiki bat bezala jarri zen... eta gaur... derrepente, zas! Lehertu da, hil egin da! Aaaaiiii.  
ALABA: Aaiiii, nire zorria...aaaiiii.  
AMA: Hainbeste jaten zuen. Lehertu da, gizarajoa!  
ALABA: Zer egingo dut orain? Ai, nire zorria...  
AMA: Lasai, neska. Larrosen artean enterratuko dugu.  
ALABA: Lurperatu? Ez, ez, eta ez!  
ERREGAEA: Badakit zer egingo dugun: larru horrekin danborra egingo dugu.  
ALABA: Danbor bat? Zertarako?  
ERREGAEA: Horrela, zure danborra parran-pan-pan, parran-pan-pan jotzen duzunean, zorriaz oroituko zara.  
ALABA: Gora nire aita!  
BIEK: Ja ja jaaaaa!

*Eta horrela, zorriaren larruarekin danborra egin zuten.*

ALABA: parran-pan-pan. Bai polita, nire zorri-danborra! (pan pan).



AMA: Isiltzeko! Beti zorri-danborra jotzen!

ALABA: (parran-pan pan).

AMA: Ixiltzekoooo! gauza bat esan behar dizut.

ALABA: Zer gauza?

AMA: Zure aitarekin hitz egin dut. Apustu bat egin behar du.

ALABA: Apustu bat?

AMA: Bai. Goazen aitarengana.

ALABA: Goazen (parran-pan-pan).

*Erregeak honela esan zuen:*

ERREGA: Gauza bat pentsatu dut, apustu bat. Bando bat joko dugu: danbor hau zerez egina dagoen asmatzen duenari diru asko emango diot.

AMA: Eta asmatzen ez duenari?

ERREGA: Bere diru dena kendu eta guretzat!

ALABA: Ja ja ja... ez du inork asmatuko! Zorri-larruz egina dela ez du inork asmatuko!

AMA: Bai aberatsak egingo garela! ja ja ja.

ERREGA: Aguazil!  
Aguazil, bando hau prestatu.

AGUAZIL: Porrón-pon-pon. Erregeren partetik galdera bat: printzesaren danborra zerez egina dago?  
Asmatzen duenari, bizkar gainean eraman dazakeen adina urre emango zaio. Asmatzen ez duenari, bere dirua kenduko zaio.  
Porrón-pon-pon...

ERREGA: Ongi dago, aguazil. Zoaz plazara eta leku guzietan bandoa irakurri!

*Hungriako erreinu hartan, hiru gizon harrigarri bizi ziren.*

JAKINTSU: Ni Super-Jakintsu naiz. Beti ideia azkarrak edukitzen ditut.

INDARTSU: Ni Super-Indartsu naiz. Izugarrizko indarra daukat.

ENTZULE: Ni Super-Entzule naiz. Urrutitik entzuten dut dena. Eh, entzun! Entzun! Aguazilaren bandoa!

AGUAZIL: ...Erregeren partetik, galdera bat: printzesaren danborra zerez egina dago? Asmatzen duenari bizkar gainean eraman dezakeen adina urre emango zaio. Asmatzen ez duenari, bere dirua kenduko zaio. Pon-pon-pon.

JAKINTSU: Ideia bat! Erregeren dirua irabaziko dugu! Goazen!

JAKINTSU: Erregeren gaztelua hemen ondoan dago. Super-entzule, ea zerbait entzuten duzun...

INDARTSU: Zerbait entzuten al duzu?

JAKINTSU: Ez al dute zerbait esaten?

ENTZULE: Bai. Erregek esaten du diru asko irabazten ari dela...

INDARTSU: Hori bakarrik?

ENTZULE: Ez dut gehiago entzuten...

*Jendea erregearen gaztelura joaten hasi zen, apustua irabazteko asmoz.*

AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?

BAT: Ardi-larruz.

AMA: Ez duzu asmatu. Galdu duzu. Zure dirua guretzat.

BAT: Barkatu, mesedez! Oso pobrea naiz!

AMA: Orain pobreagoa izango zara! Ospa hemendik! Hurrengo sar dadila!

AMA: Nira alabaren danborra zerez egina dago?

BI: Katu-larruz.

ERREGA: Ez duzu asmatu. Zure dirua guretzat. Ospa! Hurrengo!

AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?

HIRU: Txerri-larruz.

ERREGA: Ez duzu asmatu. Zure dirua! Ospa! Hurrengo!

AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?

LAU: Oilar-larruz.  
ERREGEA: Ez. Zure dirua! Ospa! Hurrengoal!  
ALABA: Gaur aski dugu, aita. Nekatuta nago.  
AMA: Bai, diru asko irabazi dugu.  
ERREGEA: Ongi dago. Bihar gehiago. Aguazil, entzun duzu, bihar arte.

*Bitartean hiru Super-Gizonak oso erne daude.*

JAKINTSU: Zerbait entzuten al duzu, Super-entzule?  
ENTZULE: Bai. Palazioan, erregea, erregina eta printzesa hitz egiten ari dira.  
JAKINTSU: Zer esaten dute?  
ENTZULE: Esaten ari dira aberasten ari direla...  
JAKINTSU: Hori bakarrik?  
ENTZULE: Ixooo! Aaaah! Aaaaah!  
JAKINTSU: Zeeer?  
ENTZULE: Aaaah! Zorri-larruz egina dagoela esan dute!  
INDARTSU: Zorri-larruz?  
ENTZULE: Bai, zorri-larruz.  
BIEK: Ja ja jaaaaa!  
ENTZULE: Diru pila bat irabaziko dugu.  
JAKINTSU: Goazen gaztelura!

*Herriko gizon-emakumeek ez zuten asmatzen danborra zeren larruz egina zegoen.*

ERREGEA: Hurrengoal!  
AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?  
BOST: Basurde-larruz.  
ERREGEA: Ez duzu asmatu. Dirua! Ospa! Hurrengoal!  
AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?

SEI: Azeri-larruz.

ERREGEA: Ez duzu asmatu. Dirua! Ospa! Hurrengo!

*Baina halako batean hiru Supergizonak agertu ziren.*

AMA: Nire alabaren danborra zerez egina dago?

JAKINTSU: Begira!!! Zorri-larruz!

ERREGEA: Nola??? Ze-rrri larruz?

JAKINTSU: Zo-rrri larruz!!!

AMA: Aaaaj! Asmatu dute!

ALABA: Kaka zarra!

ERREGEA: Lasai, lasai. Aguazil, eman bakoitzari poltsa bat urre.

JAKINTSU: Boltsa bat urre? Ez, ez, zuk esan zenuen...

INDARTSU: Tira, bota urrea!

ERREGEA: Bai, bai... aguazil, emaiozu zakukada bat urre.

INDARTSU: Zakukada bat? Zaku pila bat eramango dut nik aisa.  
Bota!

ERREGEA: Bota...ai, gure diruak...

*Horrela hiru Supergizonek izugarrizko diru pila eramán zuten erregearen gaztelutik.*

JAKINTSU: Aberatsak gara!

INDARTSU: Bakoitzarentzat zaku bat urre.

ENTZULE: Hemendik entzuten dut nola errege oraindik nigarrez dagoen...

JAKINTSU: Bere dirua galdu du eta...

INDARTSU: Gaiztoak izateagatik, to!

ENTZULE: Beno, lagunak, goazen!

JAKINTSU: Bai, goazen!

INDARTSU: luuuuppp!!!

*Eta horrela hiru Super-gizonek urrez beteta joan ziren Hungriako erregeren gaztelutik.*



# SENDAGILE EROA



DOKTOR  
ASPIRINA



## 14. SENDAGILE EROA DOKTOR ASPIRINA

- SENDAGILEA: Ea, lehenengoa!
- BAT: Egun on, jauna.
- SENDAGILEA: Non duzu min?
- BAT: Ba, ni ttikia nintzenean...
- SENDAGILEA: Aizu, ez dizut galdetu zer gertatu zitzaizun txikia zinenean. Galdetu dizut non duzun min.
- BAT: Ba, esaten nizun nola ni txi...
- SENDAGILEA: Aspirinak! Aspirinak hartu behar dituzu!
- BAT: Baina oraindik ez dizut esan zer gertatzen zaidan...
- SENDAGILEA: Aspirinak esan dizut! Eta orain bostehun pezeta ordaindu konsultagatik.
- BAT: Baina...
- SENDAGILEA: Horra, hemen duzu aspirinen errezeta... Agur.
- SENDAGILEA: Hurrengo!
- BI: Egun on, jauna.
- SENDAGILEA: Eseri. Nor da gaixo dagoena?

BI: Hau.

SENDAGILEA: Eta zu ere bai?

BI: Ez. Ni laguntzera etorri naiz. Berak ez bait daki euskaraz mintzatzeko...

SENDAGILEA: Ixo! Gaixoak hitz egin dezala! Non duzu min?

BI: Buruko mina dauka.

SENDAGILEA: Isiltzekoooo! Le duele la cabeza?

BI: Atzo erori egin zen eta...

SENDAGILEA: Isiltzeko, koño! Y usted, aspirinas!

BI: Aspirinak?

SENDAGILEA: Aspirinak! Eta bostehun pezeta. Hor ordaindu! Ea, hurrengo!

HIRU: Egun on, jauna.

SENDAGILEA: .....Non duzu min?

HIRU: Uuuui! Bai kurioa zarela!

SENDAGILEA: Broma gutxi! Non duzu min?

HIRU: Ez hasarretu, gizona. Ni oso isila naiz eta...

SENDAGILEA: Azkeneko aldiz! Non duzu min?

HIRU: Hemen, petxuan. Kenduko al ditut arropak?

SENDAGILEA: Ez da beharrezkoa. Aspirinak!

HIRU: Kenduko al dut gona?

SENDAGILEA: Ez da beharrezkoa! aspirinak! Aspirinak esan dut! Eta bostehun pezeta! Tori eta aldeeee!

HIRU: Aajj! A zer nolako jenioa daukan sendagile honek!

SENDAGILEA: Hurrengo! azkar, azkar!

LAU: Egun on, jauna.

SENDAGILEA: Non duzu min?

LAU: Behatz bat moztu dut. Odol asko erortzen zait.



SENDAGILEA: Aaah! Aspirinak!

LAU: Baina ez al didazu behatza sendatuko?

SENDAGILEA: Aski zenuen ez moztea! Aspirinak! Eta bost ehun pezeta!  
Tori... Ale...

SENDAGILEA: Ea, hurrengo!

BOST: Egun on, jauna.

SENDAGILEA: Non duzu min?

BOST: Zeer?

SENDAGILEA: Ea non duzun min.

BOST: Zeeer?

SENDAGILEA: Ea non duzun miiiin?

BOST: Hemeeeen!

SENDAGILEA: Ba, "hemen" ematen badizu min, zoaz "harantz" eta ez dizu minik emango. Je jeeeeeee.

BOST: Zeer?

SENDAGILEA: Aizu, zergatik ez duzu platano hori belarritik kentzen, eh?

BOST: Zeeer?

SENDAGILEA: Ea konturatu zaren platano bat daukazula belarrian.

BOST: Zeer?

SENDAGILEA: Entzungo al didazu, bai ala ez?

BOST: Mesedez, ea sendoago hitz egiten didazun, belarrian dudan platano honekin ez dut ezer entzuten eta...

SENDAGILEA: Aaaaj! Aspirinak! Eta bostehun pezeta!

BOST: Zeer?

SENDAGILEA: Alde hemendik, gamberro zikina! Alde!

SENDAGILEA: Hurrengo!

SEI: Kaixo.

SENDAGILEA: Bazen garaia... Azkenik gizon bat... Eseri! Emakumeekin aspertuta nago. Hitzegin eta hitzegin besterik ez dute egiten... behinere ez dute ezer izaten, eta beti gaixotasunak asmatzen... horregatik, emakume guztiei, aspirinak! Ulertzen al didazu?

SEI: Mmmmmm.

SENDAGILEA: Aaah! ederki. Eta zuri zer gertatzen zaizu?

SEI: Oso nekatua sentitzen naiz.

SENDAGILEA: Oso nekatua? Jaten al duzu?

SEI: ...

SENDAGILEA: Eta ongi lo egiten al duzu?

SEI: ...

SENDAGILEA: Eta oso nekatua sentitzen zara?

SEI: ...

SENDAGILEA: Gauza harrigarria! Ea, ikus dezagun. Aulki hau lurrean utziko dut. Ea, har ezazu bi eskuekin. Altxa! Altxa!

SEI: ...

SENDAGILEA: Gizarajoa! Oso ahula egongo zara! Ea bi eskuekin jasotzen duzun.

SEI: ...

SENDAGILEA: Ezta bi eskuekin ere? Ea, berriro proba ezazu!

SEI: ...

SENDAGILEA: Baina oso erreza da eta! Begira, jarri hemen eskuak, egin indarra, indar gehiago, indar gehiago... Horra, jaso dugu!

SEI: A zer gauza! Indarra eginda, edozeinek!

SENDAGILEA: Ganberro alena! Alde hemendik! Bostehun pezeta kontsultagatik!

SEI: Ez dauzkat.

SENDAGILEA: Alde hemendik, eta utz nazazu pakean!

SENDAGILEA: Hurrengoa!  
Hauek gorde, mesedez. Eta hurrengoa sar dadila!  
Azkar! Azkar!

ZAZPI: Egun on, jauna.

SENDAGILEA: Senar-emazteak al zarete?

ZAZPI: Bai. Ni emaztea eta hau senarra.

SENDAGILEA: Ederki, ederki. Eta nor dago gaixo?

ZAZPI: Hau.

SENDAGILEA: Orduan zu eseri hor! Zer, non duzu min?

ZORTZI: Hemen.

SENDAGILEA: Ea, egin eztula...

SENDAGILEA: Ederki! Nere ustez ez da ezer izango. Zuk egin behar duzuna zera da, pentsatu: "Sendatu naiz, sendatu naiz, sendatu naiz" eta kito! Sendatuta geldituko zara...  
Sistema ona, eh? Je je.  
Eta orain, mila pezeta, rayos X eta guzti.

ZORTZI: Ba, zuk egin behar duzuna zera da, pentsatu: "Kobratu dut, kobratu dut, kobratu du" eta kito!

SENDAGILEA: Alde! Tira! Ganberro alena! Fueraaa!

SENDAGILEA: Tori, gorde guzti hauek. Eta sar dadila hurrengoa!

BEDERATZI: Egunon.

SENDAGILEA: Non duzu min?

BEDERATZI: Ez dut ongi ikusten...

SENDAGILEA: Atean ez gelditu! Sartu barrura, gizona!

BEDERATZI: Ez dut ongi ikusten eta...

SENDAGILEA: Ez atean gelditzeko!!! Barrura sartzeko!

BEDERATZI: Nola ez dudan ongi ikusten...

SENDAGILEA: Barrura sartzeko, koño!

BEDERATZI: Banoa ba!

SENDAGILEA: Ganberroa! Ez al duzu mahaia ikusi?

BEDERATZI: Nira betaurrekoak! Nire betaurrekoak!

SENDAGILEA: Tori. Eta alde hemendik!

BEDERATZI: Nola ez dudan ongi ikusten...

SENDAGILEA: Hortik ez! Hortik ez!!!

SENDAGILEA: Hurrengo!  
Nazka-nazka egina nago guzti honekin. Nazka-nazka egina.

Oh! Berandu da!  
Bihar arte!  
Bildu guztia!



# TXORIA, ARRAINA ETA NESKATXA





## 15. TXORIA, ARRAINA ETA NESKATXA

*Bazen behin txori bat airean.  
Bazen behin arrain bat uretan.  
Bazen behin, oso zoriontsua, neska bat.*

*Egun hartan Lurdes oso pozik zegoen:*

LURDES: Ama, gogoratzen al zara bihar nire urtebetetzea dela?

AMA: Berriz! A zer pelmada!

LURDES: Ama, zer erregalatuko didazu?

AMA: Ez dakit... ez dakit... zure aita biajean dago eta...

*Gau hartan Lurdesez ezin zuen lo egin. Hamabi urte beteko zituen!*

LURDES: Bai zaharra naizela!  
Despertadorea zortziretan jarriko dut.  
Eta orain, lo egitera!

*Hurrengo goizean:*

*Trrrrrrrrrrrr*

AMA: Lurdes! Lurdes! Lurdes!  
Zorionak. Tori nire erregaloa.

LURDES: Txori bat!

AMA: Ikusiko duzu, zeinen ongi abesten duen.  
Eta hau, zure aitaren erregaloa.

LURDES: Arrain bat! Zer jaten du?  
AMA: Langostaren biboteak! Tira, zoaz dutxatzera, gaur arratsalderako merienda on bat prestatu behar dugu eta.

*Bazen behin txori bat kaiola batean.  
Bazen behin arrain bat kristalezko ontzi batean.  
Bazen behin, oso zoriontsua, neska bat.*

AMA: Lurdes, Bostak dira, laister etorriko dira zure lagunak.

LURDES: Zer dugu meriendatzeko, ama?

AMA: Ba, denetik. Txokolatea, suizoak, tarta, helatua... gero fanta, coca-cola, esnea... eta pipak, txikleak, kakahue-teak...

LURDES: Eh! Hor daude!

LURDES: Kaixo!

LAGUNAK: Zorionak!

BAT: Zorionak, Lurdes. Tori, gure arregalia.

LURDES: Patiñak! Eskerrik asko denei!

BI: Goazen kalera estreinatzerara!

AMA: Ez, geroxeago joango zarete. Orain, berdin bazaizue denen artean gela apaindu.

BAT: Goazen hastera!

AMA: Ea nola moldatzen zareten.

AMA: Ñooo, ez dago gaizki!  
Zoazte orain patinatzerara nik merienda prestatzen dudan bitartean. Tira!

*Txori batek egan egitea nahi zuen, baina burni batzuek mozten zioten bidea.*

*Arrain batek igeri egitea nahi zuen, baina kristalek mugatzen zioten lekua.*

*Neska batek ibiltzea nahi zuen baina bere bi hankak hautsiak zituen.*

LURDES: Hamabost egun hemen geldirik!

AMA: Ipuin hau irakurri nahi al duzu?



LURDES: Ez dut gogorik...  
AMA: Kromoekin jolastea nahi al duzu?  
LURDES: Ez dut gogorik...  
AMA: Zer nahi duzu ba?  
LURDES: Txori bat izan nahi dut, libre airean!  
Edo arrain bat libre itsasoan!  
Ez dut neska izan nahi, beti ohean sartuta!

*Gau hartan Lurdesek nigar asko egin zuen. Eta nigar eta nigar egin ondoren, lotan gelditu zen azkenean.*

*Eta amets bat egin zuen: txoria, arraina eta hirurak urrutik, oso urruti, zeru gainean hegaka zebiltzala:*

*Ni helikoteroan joango naiz zerura.  
Ni globo urdinean hegan joango naiz.  
Ni kohete batean joango naiz zerura.  
Ni arrano gainean.  
Ni hegazkinean.  
Oso gora goaz hodeien artetik.  
lurra behean daukagu, zein txikia den!*

LURDES: Txori bat izan nahi nuke, hegaka ibiltzko!

*Arraun-ontzi batean itsasora noa.  
Ni bapore handian.  
Ni beleroan.  
Ni urpeko batean itsasora noa.  
Ni flotaren gainean.  
Ni pirautxoan.  
Oso urruti goaz, uhainen gainetik.  
Lurra ez da ia ikusten, zein txikia den!*

LURDES: Arrain bat izan nahi nuke, igeri ibiltzeko!

*Ni trenean joango naiz.  
Ni kamioi batean.  
Ni berebil batean.  
Ni bizikletan.  
Ni astoan joango naiz.  
Ni rulotte batean.  
Ni nere patintxoan.  
Ni santxeskian.  
Ni gurdi gainean.  
Ni motozikletan.  
Ni oinez bat-bi-hiru-lau lurean zehar.*

LURDES: Hanka berri batzuk nahi nituzke, jolasteko!

*Jirafa izan nahi nuke! –esan zuen tximuak–  
Lehoia izan nahi nuke! –esan zuen jirafak–  
Artza izan nahi nuke! –esan zuen lehoiak–  
Sugea izan nahi nuke! –esan zuen artzak–  
Zaldia izan nahi nuke! –esan zuen sugeak–  
Astoa izan nahi nuke! –esan zuen zaldiak–  
Behia izan nahi nuke! –esan zuen astoak–  
Zerria izan nahi nuke! –esan zuen behiak–  
Ardia izan nahi nuke! –esan zuen zerriak–  
Zakurra izan nahi nuke! –esan zuen ardiak–  
Katua izan nahi nuke! –esan zuen zakurrak–  
Oilarra izan nahi nuke! –esan zuen katuak–  
Oiloa izan nahi nuke! –esan zuen oilarrak–  
Dortoka izan nahi nuke! –esan zuen oiloak–  
Karakola izan nahi nuke! –esan zuen dortokak–  
Xagua izan nahi nuke! –esan zuen karakolak–  
Tximeleta izan nahi nuke! –esan zuen xaguak–  
Neska izan nahi nuke! –esan zuen tximeletak–*

LURDES:

Uffff...haaaa...hau ametsa! Inor ez dago konforme!  
ba ni, hemendik aurrera, ez naiz gehiago kexatuko!  
Eh, txori! Eh, arrain! Ez triste egon! Hirurok lagun  
izango gara. Eta egun batez sendatzen banaiz, libre  
utziko zaitzuet.  
Zu, txori, zeruan. Eta zu, arrain, itxasoan.

# HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## EUSKARA ZERBITZUA

### Argitalpenak

#### GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak.
2. Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak.
3. Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala.
4. Hizkuntzen Irakaskuntza: Neurpideak (prestatzen).
5. Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu.
6. Haurrak Euskaldutzen Giñolaren bidez. Kukubiltxo Taldea.
7. Euskararen Gaitasun Agiria: Programa.
8. Euskaltzaindiak Batasunerako eskaini dituen erabakiak.
9. Haurrak euskalduntzen Giñolaren bidez II. Itzaropena M. de Lezea.
10. Ipuin zahar eta berriak. Lurdes Iriondo.
11. Jolasean. Imanol Urbietta.
12. Amonaren Ipuinak. Enkarni Genua.
13. Ipuin gehiago. Lertxundi - Lucas - Keinu - Maskarada.
14. Eskolarako ipuinak eta txotxongiloak. Itzaropena M. de Lezea.
15. Hizkuntz jolasak.
16. EABHEM: Euskara maila neurtzeko testa. Ajuria - Ibarra - Sierra.
17. EGA. 1983ko azterketak.
18. Bakarka 1.
19. Euskalkiz Euskalki.
20. Kontu Kontari. (Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez (2.zatia). Lurdes Iriondo.

#### HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. Bizkaieraren idatzizko arauak.

#### ZABALKUNDE-LANAK:

1. Euskal ikasmaterialen bilduma 1984.
2. EIMA programa: Euskal ikasmaterialgintza. 1984eko ekitaldiaren azalpen bateratua.













*Kontu kontari*

EK15030396